4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza

Baterako sorkuntza

- Baterako sorkuntzako zentralen operazioa sistema elektrikoan:
 - Eskariari loturiko sorkuntza
 - Oinarri eta karga-erregulazio funtzionamendua
 - Aldakortasun gutxi (energia primarioa kudea daiteke)

4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza

Baterako sorkuntza




4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza

Baterako sorkuntza. Lurrunezko turbina.

• Kontrapresioko lurrin-turbina

- Turbinatik irtengo den lurrinak prozesurako behar den temperatura eta presioa izango ditu.
- Erauzketak eginez, beste temperatura eta presio bat izango dituen lurrina lor daiteke.
- Turbinatik igarotzen den lurrin-fluxua behar termikoen araberakoa da. Beraz, sorturiko elektrizitatean ez da egongo inongo malgutasunik. Hori dela eta, beharrezkoa da sarearekiko konexioa, memento bakoitzean sorturiko eta kontsumituriko energia elektrikoaren diferentzia konpentsatzeko (saldu edo erosi).


- Turbinak sorgailua 3.000 rpm-tan mugitzen du. Itteera-lurrinaren presioa 0,12 – 4 Mpa artekoa da eta temperatura 200 °C eta 300 °C artekoa.



4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Baterako sorkuntza

• Kondentsazioko lurrin-turbina


- Prozesuan behar den lurrina turbinaren tarteko etapetan ateratakoa izango da eta, azkenik, turbinatik ateratzen den lurrina kondentsazio-presioan egongo da (presio atmosferikoa baino baxuagoa).
- Kondentsadorean galdutako beroak eragiten du errendimendua kontrapresio-turbinakoetan baino txikiagoa izatea.
- Turbinatik igarotzen den lurrin-fluxua erregulatuz sorturiko energia elektrikoa kontrola daiteke.



4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Baterako sorkuntza. Lurrunezko turbina.

• Gas-turbina

- Ziklo irekiko gas zentral baten antzeko prozesua.
- Desberdintasuna: ihes-gasak lurrina sortzeko erabiltzen dira (berreskuratze-galdara).
- Erregaiak: gas naturala edo petroliotik ateratako gasak.




4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza

Baterako sorkuntza. Gasezko turbina.

• Gas-turbina

- Presio eta tenperatura-balio handiagoko lurruna behar denean, errekuntza ondoko ganbera bat erabiltzen da.
- Bero/elektrizitate-ratio handiagoak lor daitezke eta balio hori aldakorra izan daiteke instalazioaren beharren arabera.




4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza

Baterako sorkuntza. Ziklo konbinatua.

• Ziklo konbinatua

- Errekuntza ondoko ganbera duten gas-turbinetan kontrapresioko edo kondentsazioko lurrun-turbina ipin daiteke elektrizitate gehiago sortzeko.
- Ziklo sinplearekin baino bero/elektrizitate-ratio txikiagoak.
- Instalazio konplexuak. Industria-instalazio handi baten hornikuntza integralerako edo auzo baten berokuntzarako erabiltzen denean bakarrik merezi du ipintzeak.




4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza

Baterako sorkuntza. Barne-errekuntzako motorra.

• Barne-errekuntzako motorra

- Deseleko, biogaseko edo gas naturaleko motorrek sorgailu sinkrono bat mugitzen dute. Ihes-gasen, lubrikazio-olioaren eta hozte-uraren beroa berreskuratzeko sistemak dauzka.
- Potentzia: kW gutxi batzuetatik zenbait MW-era.
- 500 kW gaineko potentzientzat, ekonomikoa da lurruna ekoizteko berreskuratze-galdara bat ipintzea.




4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza


Baterako sorkuntza. Teknologia berriak.

• Mikroturbinak

- 3 kW eta 200 kW arteko gas-turbina txikiak dira. 35.000 eta 100.000 rpm arteko abiadurekin biratzen dute, eta zuzenean airearen bidez hozten dira.
- Ardatzean zuzenean akoplaturiko iman iraunkorreko sorgailu sinkrono bati eragiten diote.
- Zenbait erregai gaseoso erre daitezke aldaketa txikiekin.
- Sare elektrikorako konexioa bihurtu baten bidez egiten da.



4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Baterako sorkuntza. Teknologia berriak.





4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Baterako sorkuntza. Teknologia berriak.

• Erregai-pilak

• Elektrizitatean zuzenean energia kimikoa sortzen duten gailu estatikoak dira. Pila hidrogenoarekin eta airearekin elikatzen da, eta Elektrizitatea, ura eta beroa lortzen dira.

• Erabilitako materialen arabera, lau teknologia daude. Bakoitzak temperatura-balio desberdinekin lan egiten du:

- Azido fosforikoko pilak (PAFC): 150 – 200 °C
- Polimero-pilak (PEFC): 80 °C
- Karbonato urtuko pilak (MCFC): 650 °C
- Oxido solidoko pilak (SOFC): 700 °C



4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Erregimen berezia

- Energia berriztagarrietan eta baterako sorkuntzan oinarritzen diren instalazioak Erregimen Bereziko Sorkuntzaren barnean daude Espainiako araudian.
- Erregimen Bereziko oinarrizko araudia maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretua da. Araudi horrek ezartzen ditu instalazioek Erregimen Bereziko Sorkuntzaren barnean egoteko bete beharreko baldintzak, energia-ekoizpenaren ezaugarriak eta ordainketa-erregimena.
- Erregimen Bereziko zentralek izena emanda egon behar dute dagokien erregistroan.
- Instalaturiko potentziaren helburu batzuk zehazten dira eta hor aplikatzen da ordainketa-erregimena.

4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Erregimen berezia

Erregimen bereziaren barnean, honako baldintza hauek betetzen dituzten 50 MW edo gutxiagoko instalazioak daude:

a) Errendimendu energetiko handiko baterako sorkuntza edo hondar-beroa erabiltzen duena. Honako azpimultzo hauek daude:

a.1) Errendimendu energetiko handiko baterako sorkuntza:

a.1.1) Gas naturala (% 95eko energia primarioa edo % 65ekoa, gainerakoa biomasa edota biogasa bada).

a.1.2) Gasolioa, fuel-olioa edo GLP (% 95eko energia primarioa).

a.1.3) Biomasa edota biogasa (% 90eko energia primarioa).

a.1.4) Besteak.

a.2) Energia elektrikoa edota mekanikoa sortzea helburu ez duten instalazioetan sorturiko hondar-beroa.

$$REE = E / [Q - (V / \text{refH})]$$

REE: errendimendu elektriko baliokidea.

E: sorturiko energia elektrikoa.

Q: kontsumituriko energia primarioa.

V: Sorturiko bero erabilgarria.

refH: beroa aparte sortzeko prozesuaren errendimenduaren erreferentzia-balioa.

	REE
Erregai likidoa eta lurrun-galdara	49
Erregai likidoa eta motor termikoa	56
Erregai solidoak	49
Gas naturala edo GLP eta motor termikoa	55
Gas natural edo GLP eta gas-turbina	59

4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Erregimen berezia

b) Energia berriztagarriak, biomasa eta bioerregaiak

b.1) Eguzkia-energia:

b.1.1) Fotovoltaikoa.

I mota. Eraikinen eta aparkalekuen teilatuetan eta aurrealdean kokaturikoak

I.1. Potentzia 20 kW edo txikiagoa.

I.2. Potentzia 20 kW baino handiagoa.

II mota. Besteak.

b.1.2) Termikoa. Laguntza-erregaiak erabil daitezke urteko ekoizpenaren % 12ren (tarifan) edo % 15aren azpitik (merkatuan).

b.2) Energia eolikoa:

b.2.1) Lurrean

b.2.2) Itsasoan

b.3) Energia geotermikoa, olatuena, mareena, harkaitz bero eta lehorrena, ozeanotermikoarena eta itsas korronteena.

b.4) 10 MW azpiko zentral hidroelektrikoak.

b.5) 10 MW eta 50 MW arteko zentral hidroelektrikoak.

b.6) Landareen biomasa.

b.6.1) Laboreak

b.6.2) Nekazaritza- eta lorategi-jardueren hondakinak.

b.6.3) Baso-jardueren hondakinak.

4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Erregimen berezia

b.7) Nekazaritza- eta abere-hondakinak, industria-hondakinak, ur-araztegietako hondakinak eta zabortegei kontrolatuetako hondakinak.

b.7.1) Zabortegeietako biogasa.

b.7.2) Industria hondakin biodegradagarrien biogasa, ur-araztegietako lokatzen biogasa, hiri-hondakin solidoarena, abere-hondakinena, nekazaritza-hondakinena eta beste digestio anaerobio batzuen biogasa.

b.7.3) Simaurra errekuntzarako eta erregai likidoak.

b.8) Industria-instalazioen biomasa

b.8.1) Nekazaritza-arloko industria-instalazioen biomasa.

b.8.2) Baso-arloko industria-instalazioen biomasa.

b.8.3) Paper-industriaren likore beltzak.

c) Balorazio energetikoko hondakinak:

c.1) Hiri-hondakin solidoak.

c.2) Beste hondakin batzuk.

c.3) Gutxienez erabilitako energia primarioaren % 50 ematen duten hondakinak.

c.4) Meategietako hondakinak (R.D. 2366/1994 barnekoak).

4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Erregimen berezia

Erregimen bereziko ekoizleen eskubideak:

- Banaketa-/garraio-sarearekin paraleloan konektatzea.
- Ekoiztiriko guztia sisteman sartzea (teknikoki posible bada).
- Energia-salmentagatik dagokiona jasotzea.
- Ekoizpen osoa edo zati bat linea zuzenen bidez saltzea.
- Sarerako konexio lehenetasuna, zehaztutako neurrietan.

Erregimen bereziko ekoizleen betebeharrak:

- Energia baldintza tekniko egokietan ematea.
- Energia termiko erabilgarria ematen duten a) motako instalazioek salmenta-kontratu bat egin beharko dute instalazioaren bero erabilgarri guztiarekin.
- Instalazioa dagokion erregistroan erregistratzea.
- Potentzia 10 MW baino handiagoa bada, instalazioa sorkuntzaren kontrol-gune baten menpe egongo da:
 - Sistemaren operadorearekin harremanetan jartzeko bidea da.
 - Denbora errealean ematen du informazioa eta jasotzen ditu aginduak.
 - Instalazio- eta mantentze-kostuak sorkuntza-sistemak ordaintzen ditu.
 - P.O. 9 «Información intercambiada por el Operador del Sistema»
- Instalazio eolikoek P.O. 12.3 «Requisitos de respuesta frente a huecos de tensión en las instalaciones eólicas» bete behar dute.

4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Erregimen berezia

Bi ordainketa mota daude:

- Energia banaketa- edo garraio-sarean sartu, arauturiko tarifa bat jasoz:
 - Talde, azpitalde eta antzinatasunaren arabera.
 - Bakarra programazioaren tarte guztietan.
 - Bi tarte (punta eta harana) kudea daitezkeen a) eta b)-koentzat.
- Energia merkatuan saldu (merkatu antolatuan edo bi aldeko kontratua). Salneurria merkatuan ateratzen dena edo adosturikoa da, prima batekin osaturik:
 - Talde, azpitalde eta antzinatasunaren arabera.
 - Aldakorra b) taldearentzat, b.1.1 eta b.3 izan ezik. Goi- eta behe-muga bat zehazten da merkatuko salneurriaren eta primaren arteko baturarentzat.
- Ekoizleek gutxienez urtebeterako izango den ordainketa mota aukera dezakete.

Osagarriak

- Eraginkortasunagatik:

$$C_{\text{eraginkortasuna}} = 1,1 \times (1/REE_{\text{min}} - 1/REE_i) \times C_{\text{mp}}$$

- a.1 motako instalazioek eskatzen den minimoa baino errendimendu hobea dutenean.

- Erreaktiboagatik:

- Potentzia-faktorea mantentzea.
- 10 MW baino gehiagoko instalazioak Sistema Operatzailearekin
- 8,7022 c€/kWh (2011)

Tipo de Factor de potencia	Factor de potencia	Bonificación %		
		Punta	Llano	Valle
Inductivo	Fp < 0,95	-4	-4	8
	0,96 > Fp ≥ 0,95	-3	0	6
	0,97 > Fp ≥ 0,96	-2	0	4
	0,98 > Fp ≥ 0,97	-1	0	2
	1,00 > Fp ≥ 0,98	0	2	0
	± 0,00	0	4	0
Capacitivo	1,00 > Fp ≥ 0,98	0	2	0
	0,98 > Fp ≥ 0,97	2	0	-1
	0,97 > Fp ≥ 0,96	4	0	-2
	0,96 > Fp ≥ 0,95	6	0	-3
	Fp < 0,95	8	-4	-4

4. gaia. Energia Berriztagarriak eta Baterako Sorkuntza Erregimen berezia

Aukeratzen den ordainketa mota edozein izanda ere, erregimen bereziko ekoizleak merkatuan parte hartu beharko du honako baldintza hauekin:

- Arauturiko tarifako instalazioak:
 - Energia merkatuan saldu beharko dute, desbideraketak kalkulatu ahal izateko. Zuzenean edo agente baten bidez.
 - Eskaintzak zerora egingo dituzte eguneko merkatuan eta, behar izanez gero, egun barneko merkatuan.
 - Ordukako neurri-ekiporik gabeko instalazioetan, onarturiko ekoizpen-profilak erabiliko dira.
 - Sistema-operadoreak desbideraketen kostuaren likidazioa egingo du. Desbideraketa aurreikusitako eta emandako ekoizpenaren arteko diferentzia da, balio absolutuan.
- Merkatuko instalazioak:
 - Energia salduko dute merkatu antolatuan, bi aldeko kontratuen bidez edota eperako merkatuan.
 - Ekoizleak edo agenteak eskaintza-unitate bat edo zenbait unitate aurkez ditzake ordezkatzan dituen instalazio multzoarentzat.
 - Sistemaren doitze-zerbitzuetan parte har dezakete:
 - Eskaintza minimoa 10 MW-ekoa izango da, banaka edo elkartuta.
 - Erregimen bereziko instalazio guztiak, kudea ezin daitezkeenak izan ezik.
 - Murrizketa tekniko delata eta, programaturiko baterako sorkuntzako instalazioak ez daude behartuta eraginkortasunaren baldintza betetzera.

ENERGIA ELEKTRIKOAREN SORKUNTZA

5. SORKUNTZAREN SARE-KONEXIOA

5.1 Zentral handiak

5.1.1 Konexioa

5.2 Zentral bateko sistema elektrikoak

5.2.1 Hari bakarreko diagrama

5.2.2 Sorgailu-sare interkonexioa

5.2.3 Laguntza-zerbitzuak

5.2.4 Tentsio ertaineko eta behe-tentsioko sistemak

5.3 Sorkuntza banatua


5.3.1 Sarrera

5.3.2 Problematika

5.3.3 Konexioa

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Zentral handiak. Konexioa.

- Zentralean bertan dagoen azpiestazio igotzaile baten bidez egiten da zentral elektrikoak eta garraio-sarearen arteko konexioa. Azpiestazio horretatik irteten diren goi-tentsioko lineak inguruan dauden garraio-sareko azpiestazioetara doaz.



Aldeadávila I eta Aldeadávila II zentral hidroelektrikoen sare-konexioa

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Zentral handiak. Konexioa.

- 54/1997 Legea → Sorkuntza-zentral berrien konektatzeko askatasuna.
- Garraio-sarera konektatzeko araudia: P.O. 12.1 «Solicitud de acceso para la conexión de nuevas instalaciones a la red de transporte»:
 - Garraio-sarera instalazio berriak konektatzeko beharrezkoa den sartzeko- eta konexio-prozesuen baldintzak eta garapena zehazten ditu.
 - Garraio-sarearen operadoreari eta kudeatzaileari konexio-puntua eskatzea. Beharrezko informazioa emango zaio, konexioa egitea posible den zehazteko behar den azterketa egiteko.
 - Baimenik ez emateko arrazoi bakarra da garraio-sarearen ahalmena nahikoa ez izatea.
 - Sarearen ahalmena nahikoa den ala ez erabakitzeke horniketaren segurtasuna, erregulartasuna eta kalitatea hartzen dira kontuan.
 - Garraio-sarearen ahalmena puntu batean:
 - ◆ Kontsumorako: puntu horretan gehitu daitekeen karga maximoa, sistemaren segurtasun- eta funtzionamendu-irizpideen arabera zehazturiko horniketa-bermearen arabera.
 - ◆ Sorkuntzarako: puntu horretan injekta daitekeen aldiuneko ekoizpen maximoa.
 - Kontsumitzaile berriak sartzeko murrizturik gera daiteke dauden kontsumitzaileen horniketa-bermea mantentzeko. Sistemaren garapenean oinarritzen da murrizketaren soluzioa.
 - Sarearen ahalmenaren erreserba ezagatik egiten zaio uko ekoizleak sartzeari.


5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Zentral handiak. Konexioa.


- Instalazioaren diseinua:
 - «Reglamento sobre Condiciones Técnicas y Garantías de Seguridad en Centrales eléctricas, Subestaciones y Centros de Transformación e Instrucciones Técnicas Complementarias»
 - P.O. 12.2 «Instalaciones conectadas a la red de transporte: requisitos mínimos de diseño, equipamiento, funcionamiento y seguridad y puesta en servicio»
- Zentral elektrikoak konektaturik dauden garraio-sarearen tentsioan eta maiztasun-kontrollean parte hartu behar dute (tentsioaren kontrol-sistemaren eta sorkuntza-eskariaren desorekak).
- Sistema-operadoreak kudeaturiko sarearen muga-puntuetan bete beharreko baldintzak P.O. 1.4-an zehazten dira («Condiciones de entrega de la energía en los puntos frontera de la red gestionada por el operador del sistema») :
 - 400 kV-eko barratan, tentsioa 390 kV eta 420 kV artean egon behar da operazio-baldintza normaletan. Egoera berezietan, 375 kV eta 435 kV artean.
 - 220 kV-eko barratan, tentsioa 205 kV eta 245 kV artean egon behar da operazio-baldintza normaletan. Egoera berezietan, 200 kV arte jaits daiteke.
 - Maiztasuna 49,85 eta 50,15 artean mantendu behar da operazio-baldintza normaletan.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Zentral handiak. Konexioa.

- Bi eratarra egin daiteke sorkuntza berriaren konexioa sarean (aukera bat ala bestea hartzea araudian ezarritako garraio-sarearen garapen-irizpideen arabera izango da):
 - Badagoen edo planifikaturik dagoen azpiestazio bat aldatzea edota handitzea.
 - Badagoen edo planifikaturik dagoen linea bat zatitzea, sarrera eta irteera eginez azpiestazio berri batean.




- Jarduerak banantzearen lege-printzipioa jarraitzeko, etengailuak jarri behar dira garraio-sarearekiko lotura-instalazioaren bi muturretan (sarearen alde eta bertara konektaturiko instalazioaren alde), nahiz eta instalazio berria eta garraiokoa gertu egon. Sorkuntzarako, aukera egokiena sorkuntza-etengailua gotea da.
- Transformadore igotzailea sarearen aldean izarrean konektatuko da, lurrera zuzenean duen neutroarekin eta triangeluan sorkuntzaren aldean.
- Garraio-instalazioen ekipoek bete beharreko ezaugarriak, bai badauden azpiestazioak aldatzeko baita instalazio berrientzat ere, hemen daude: P.O. 13.3 «Instalaciones de la red de transporte: criterios de diseño, requisitos mínimos y comprobación del equipamiento y puesta en servicio».



Loturako instalazioa transformaziorik gabe

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Zentral handiak. Konexioa.

- Lehenetsuna duten konfigurazioak garraio-azpiestazio berrientzat:
 - 400 kV: etengailu eta erdi, eraztun aldagarria.
 - 220 kV: etengailu eta erdi, eraztun aldagarria, barra bikoitza akoplamenduarekin.
- Etengailu eta erdi:
 - Lau sarrera edo irteera baino gehiago behar direnean (400 kV), bost baino gehiago (220 kV) edota tentsio-maila edozein izanda ere, azpiestazio berriaren kritikotasunak fidagarritasun handiko eskema eskatzen duenean.
- Gara daitekeen eraztuna:
 - Hasiera batean lau sarrera edo irteera baino gehiago behar ez direnean.
 - Kasurik arruntena: garraio-linea bat etetea sorkuntza-/kontsumo-instalazio bat konektatzeko; bi sarrera edo irteera behar dira, bat edo bi transformadore(ar)entzat.
 - Hiru sarrera/irteera bakarrik behar direnean, erdiko etengailurik gabe joan daiteke.
- Barra bikoitza akoplamenduarekin
 - 220 kV-eko azpiestazio berriak, baldin eta epe luzera bost sarrera/irteera edo gutxiago espero badira. Gainera, barren akoplamendu-posizio bat egongo da.
 - Garraio-sarea gurutzatzen duten azpiestazioen posizio kopurua bost baino gehiago denean.



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Zentral handiak. Konexioa.

Azpiestazioen ekipamendua: etengailu eta erdi

Aparamenta por diámetro de tres posiciones:


Interruptores (521, 520, 522).
Transformadores de intensidad (TIB1, TI01, TIB2).
Seccionadores de barras (89B1, 89B2).
Seccionadores de calle (8910, 8901, 8902, 8920).
Seccionadores salida posición (89-3+57-3, 89-4+57-4).
Transformadores de tensión (TC-3, TC-4).
Pararrayos (PY) (si proceden).

Aparamenta por diámetro de dos posiciones (designación orientativa para entrada/salida lateral barras 1):

Interruptores (521, 520).
Transformadores de intensidad (TIB1, TI01).
Seccionadores de barras (89B1, 89B2).
Seccionadores de calle (mínimos 8910, 8901, 8902).
Seccionadores salida posición (89-3+57-3).
Transformadores de tensión (TC-3).
Pararrayos (PY) (si proceden).

Aparamenta por barras:

Transformadores de tensión (TC-B1, TC-B2) (mínimo una fase).



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Zentral handiak. Konexioa.


Azpiestazioen ekipamendua: eraztun aldagarria

Aparamenta diámetro de tres posiciones de interruptor:

Interruptores (521, 520, 522).
Transformadores de intensidad (TIB1, TI01, TIB2).
Seccionadores de barras (89B1, 89B2).
Seccionadores de calle (8910, 8901, 8902, 8920).
Seccionadores salida posición (89-3+57-3, 89-4+57-4).
Transformadores de tensión (TC-3, TC-4).
Pararrayos (PY) (si proceden).

Aparamenta diámetro de una posición de interruptor:

Interruptor (520).
Transformadores de intensidad (TI01).
Seccionadores de barras (89B1, 89B2).
Seccionadores de calle (8910, 8901, 8902, 8920).
Seccionadores salida posición (89-3+57-3, 89-4+57-4).
Transformadores de tensión (TC-3, TC-4).
Pararrayos (PY) (si proceden).



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Zentral handiak. Konexioa.

Azpiestazioen ekipamendua: barra bikoitza akoplamenduarekin

Aparameta por calle:


Interrupitor (52).
 Transformador de intensidad (TI).
 Seccionadores de barras (89B1, 89B2).
 Seccionador salida posición (89+57).
 Transformador de tensión (TC).

Aparameta posición acoplamiento:

Interrupitor (52).
 Transformadores de intensidad (TI).
 Seccionadores de barras (89B1, 89B2).

Aparameta de barras:

Transformadores de tensión (TCB1, TCB2) (mínimo una fase)



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa:


Sistema elektrikoak. Hari bakarreko diagrama.

■ Zentral bateko sistema elektrikoaren funtzioak:

- Sorgailua eta sarea interkonektatu, sorturiko energia elektrikoaren eman ahal izateko.
- Ekoizpen-prozesuan beharrezkoak diren sistema elektrikoaren horniketa.

Sorgailu-sare interkonekzioa
1. taldea

Sorgailu-sare interkonekzioa
2. taldea




Tentsio ertaineko sistemak
Laguntza-zerbitzuen
horniketa

Behetentsioko sistemak
Laguntza-zerbitzuen horniketa


5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sistema elektrikoak. Sorgailu-sare interkonexioa.

- Bi modu daude sorgailua sarera konektatzeko:
 - Barra kolektorera konexioa: sorgailu baten borneetan gertatutako zirkuitulaburrak beste sorgailuetan eragiten du zuzenean.




- «Bloke» edo «multzo» konexioa: multzoek modu independentean lan egin dezakete; gaur egun, erabiliena




5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sistema elektrikoak. Sorgailu-sare interkonexioa.


- Sistema elektrikoaren osagaiak:
 - Sorkuntza-barra: airean isolaturiko Al eroaleen bidez ateratzen da zentral handietan sorturiko energia.
 - Sorkuntza-etengailua
 - Potentzia-transformadorea
 - Trifasikoa edo 3 monofasikoen multzoa
 - Olio-isolamendua
 - Laguntza-zerbitzuen transformadorea
 - Trifasikoa
 - Olio-isolamendua edo lehorra



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Sistema elektrikoak. Sorgailu-sare interkonexioa.



1 High-current bus duct, 2 Generator, 3 Generator neutral point, 4 Neutral earthing cubicle, 5 Short-circuiting facility (temporary), 6 Voltage transformer cubicle, 7 Excitation transformer, 8 Generator circuit-breaker, HEC type with 8.1 control cubicle, 9 Voltage and capacitor cubicle, 10 Expansion joint, 11 Station auxiliary transformer, Main transformer, 14 Current transformer / feeder side, 15 Current transformer/neutral side



Single-line diagram of a generator circuit-breaker system
1 Main transformer, 2 Station services transformer, 3 Current transformer, 4 Surge arrester, 5 Protection capacitor, 6 Voltage transformer with 1 or 2 secondary windings, 7 Earthing switch, motor-actuated, 8 Series disconnector, motor-actuated, 9 Short-circuit connection with clip for earth connection, 10 Circuit-breaker, 11 Starting circuit-switch, motor-actuated, 12 Generator, 13 Earth



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Sistema elektrikoak. Laguntza-zerbitzuak.

- Zentralaren sistema elektrikoak laguntza-zerbitzuak elikatzen ditu. Zenbait tentsio-mailatan bananduta dago, bertara konektaturiko ekipoen potentziaren arabera.
- Beharrezkoak dira:
 - Sorgailuaren funtzionamendu egokirako (sorgailuaren laguntza).
 - Prozesuaren funtzionamendu egokirako (zentralaren laguntza).
- Sorgailuaren laguntza-sistemak:
 - Kitzikapen-sistema: errotoreak behar duen korrante zuzena ematen du.
 - Babes-sistema: sorgailua eta multzoa (sorgailu+transformadore) babesten ditu hutsegiteen aurrean eta funtzionamendu-egoera ezohikoetan.
 - Sinkronizazio-sistema: sorgailua sarearekin sinkronizatzea ahalbidetzen du.
 - Neurketa- eta kontaktze-sistemak: sareari emandako energia zehazteko (0,2 klase aktiboa eta erreaktiboa).
 - Abio-sistema estatikoa: ziklo konbinatuko sistemetan gas-turbina abiarazteko.
- Zentralaren laguntza-sistemak:
 - Tentsio ertaineko korrante alternoko sistemak eragingailuentzat (motorrak eta maiztasun-bihurgailuak).
 - Tentsio ertaineko eta behe-tentsioko korrante alternoko sistemak eragingailuentzat, indarrarentzat eta argiarentzat.
 - Korrante alternoko eta korrante zuzeneko sistemak kontrolerako, neurketarako eta babeserako.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Sistema elektrikoak. Laguntza-zerbitzuak.

- Laguntza-zerbitzuen potentzia eta kontsumoa zentral motaren arabera da. Balio tipikoak:

Zentral mota	Potentzia (zentralaren potentzia izendatuaren %)
Hidroelektrikoak	0,5 – 1,5
Termiko arruntak	4 – 8
Termiko nuklearrak	4 – 6


- Prozesurako daukan garrantziaren arabera:
 - Oinarrizkoak: horniketak gabe geratuz gero, ekipamenduan edo bizitzetan kalte garrantzitsuak eragin ditzaketenak.
 - Normalak:
 - Presazkoak: horniketak gabe geratuz gero, zentralaren irteera-potentiaren murrizketa eragiten dutenak.
 - Balizkoak: ez segurtasunean eta ez zentralaren ekoizpenean eraginik ez duten ekipamenduak.
- Laguntza-zerbitzuen horniketa zentral motaren eta bere konfigurazioaren arabera da:
 - Ziklo konbinatuko zentral termikoak: zentral termiko konbentzionaletan baino laguntza-zerbitzu gutxiago (errota, haizagailua, eta abar gutxiago).
 - Zentral nuklearrak: laguntza-zerbitzuen elikadura zenbait lineatan banantzen da, potentzia beharrak handiak direlako. Larrialdiko elikadura-sistemak bikoiztu egiten dira.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Sistema elektrikoak. Laguntza-zerbitzuak.


- Laguntza-zerbitzuen horniketa:
 - Egoera normala: laguntza-zerbitzuen transformadoreen bidez.
 - Larrialdiko egoera: abiatzean, gelditzean edo matxura bat gertatzen denean.
 - **Erreserba- edo abio-transformadorea**. Transformadore honek laguntza-zerbitzuen laguntza-transformadorearen potentzia berdina dauka. Horrela, laguntza-transformadoreak kale egiten badu, barren akoplamendua itxiz, zentralak abio-transformadoretik elikatuz lan egin dezake.
 - **Tentsio ertaineko kanpoko laguntza-sarea**. Irteera-linea edo azpiestazioa aztertu behar direnean, laguntza-zerbitzu nagusiak elikatuko ditu.
 - **Larrialdiko elikadura-sistemak**
 - Diesel sorgailuak
 - UPS sistemak



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Sistema elektrikoak. Laguntza-zerbitzuak.



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Sistema elektrikoak. Laguntza-zerbitzuak.




400 MW-eko ardatz bakarreko bi multzo dituen ziklo konbinatuko zentral termiko baten eskema elektrikoa.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sistema elektrikoak. Tentsio ertaineko eta behe-tentsioko sistemak

- Zentralaren laguntza-zerbitzuak hornitzeko beharrezkoak diren laguntza-sistemak:
 - Tentsio ertaineko sistema:
 - Karga handiak hornitzen ditu (tentsio ertaineko motorrak, maiztasun-bihurgailuak, TE/BT transformadoreak).
 - Larrialdiko energia-sorkuntza sistemak bertan konektatzen dira (diesel-sorgailua).
 - Zatiketa anizkoitzeko barra duen eskema erabiltzen da eta barren artean transferentzia automatikoa erabiltzen da. Airean edo SF₆-an isolaturiko gelaxkak erabiltzen dira.
 - Behe-tentsioko sistema:
 - Karga txikiak hornitzen ditu (behe-tentsioko motorrak, maiztasun-bihurgailuak, argia, indarra, korrante zuzeneko sistemen iturriak).
 - Zatiketa anizkoitzeko barra duen eskema erabiltzen da eta barren artean transferentzia automatikoa erabiltzen da. Airean isolaturiko kabinak erabiltzen dira



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sorkuntza banatua. Sarrera.

- Ez dago definiziorik, baina zenbait ezaugarri aipa daitezke:
 - Ez dago modu zentralizatuan planifikaturik (*utility* batengatik).
 - Operazioa ez da modu zentralizatuan egiten.
 - Potentzia 50 MW – 100 MW baino txikiagoa.
 - Banaketa-sareari konektaturik.
- Energia berriztagarriak eta baterako sorkuntzak osatzen dute. Potentzia txikiko zentralak dira. Geografian zehar banaturik daude. Horregatik, banaketa-sareari konektatzen dira. Sorturiko energia energia primarioaren baliabideen funtzioan dago.
- Espainiako legedian, Sorkuntzaren Erregimen Bereziaren barnean dago banaturiko sorkuntza (R.D. 661/2007).

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sorkuntza banatua. Sarrera.

■ Gaur egun:

■ Soilik energia ekoizten dute.


■ Ez dira potentzia-iturritzat hartzen, ez baitute beste zerbitzurik betetzen (maiztasun-kontrola, tentsio-kontrola, energia-erreserba, sarearen fidagarritasuna, etab.). Garraio-sarera konektaturiko parke eoliko handiek zerbitzu horietako batzuk eman behar dituzte.

■ Etorkizunean, sisteman daukan partaidetza handiagotzean (eolikoa, mikroturbinak, stirling motorrak, sistema fotovoltaikoak...) eta kontrol-teknikak hobetzean, banaturiko sorkuntza potentzia-iturri izatera pasatuko da. Honek aldaketa handiak ekarriko ditu banaketa-sarearen eta, ondorioz, potentzia-sistema elektriko osoaren diseinuan eta operazioan.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sorkuntza banatua. Problematika.

■ Egungo potentzia-sistema elektrikoaren diseinua eta operazioa:




Potentzia-sistema elektrikoaren diseinua

■ Potentzia aktiboa (P) eta erreaktiboa (Q) goi-tentsiotik behe-tentsiora doa, hots, sorgailuetatik kontsumitzaileengana. Sistema erradiala da.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sorkuntza banatua. Problematika.

■ Banaturiko sorkuntza askoko potentzia-sistema elektrikoa:



Potentzia-fluxuak alderantzikatu egiten dira. Banaketa-sarea pasibo izatetik (kargak bakarrik) aktibo izatera pasatzen da. P eta Q-ren fluxuak eta tentsioak kargan eta banaturiko sorkuntzaren funtzioan daude.

Haran-orduetan hartzen du garrantzi handiena.

Horrek ondorio tekniko eta ekonomikoak dakartza sistema elektrikoarentzat. Izan ere, bere diseinuan ez zen kontuan hartu funtzionamendu-egoera berri hau, eta sistema modu erradialean operatzen da, linea-burutik (azpiestazioaren irteera) kontsumitzaileengana.

Erregimen bereziko instalazio batek konektatzean izan dezakeen potentzia maximoa arauturik dago.

- Lineak: lineara konektaturiko instalazioaren potentzia osoak ez du gaindituko linearen konexio-puntuak daukan ahalmenaren % 50.
- Azpiestazioak eta transformaziorik gabekoak: azpiestazio edo transformaziorik gabeko bati konektaturiko instalazioaren potentzia osoak ez du gaindituko tentsio-maila horretan dagoen transformazio-ahalmenaren % 50.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sorkuntza banatua. Konexioa.

Sarera sartzea eta konektatzea, eta erregimen bereziaren operazio-baldintzak honako dekretu hauetan daude emanda:

- 1955/2000 Errege Dekretua.
- 1663/2000 Errege Dekretua, behe-tentsioko fotovoltaikoarentzat.

Arau tekniko berriak ez dauden bitartean, aipaturiko dekretuak jarraituko dira eta honako baldintza partikular hauek ere bai:

- Multzoak ez badaude sarearekin paraleloan, konmutazio-sistema bat beharko da ziurtatzeko sorgailuak ez direla sarera konektaturik geratuko.
- Sarearekin paraleloan dauden multzoek sorgailu sinkronoak edo asinkronoak erabil ditzakete. Beharrezkoa denean, konexioa moztu beharko dute sistema operadoreak horrela eskatzen badu.
- Interkonexioaren potentzia maximoari dagokionez, honako irizpide hauek jarraituko dira:
 - Lineara konexioa: potentzia osoak ez du gaindituko konexio-puntuan lineak daukan diseinuko muga termikoaren % 50.
 - Azpiestazio eta transformaziorik gabeko konexioa: potentzia osoak ez du gaindituko tentsio-maila horretan instalaturiko transformazio-ahalmenaren % 50.
 - Kudeaezina den sorkuntza (b.1, b.2, b.3 ur-lasterreko b.4 eta b.5): potentzia osoak ez du gaindituko konexio-puntuaren zirkuitulabur potentziaren 1/20.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sorkuntza banatua. Konexioa.

- Segurtasuna eta horniketa-kalitatea bermatzen diren heinean, erregimen bereziko sorkuntzak lehentasuna izango du erregimen arruntarekiko, bai energia ateratzeko bai konexiorako, baldin eta konexio-puntuaren ahalmena mugatua bada. Berriztagarrietan oinarritzen direnek lehentasuna dute erregimen bereziaren barruan.
- Banaketa-sarera konektaturiko 10 MW baino gehiagoko instalazioek sistema operadorearen onarpena beharko dute garraio-sarearen ikuspegitik.
- Ahal bada, zenbait instalaziok batera erabiliko dute irteera-azpiegitura. Garraio-sarerako konexioan, Korapiloko Interlokutore Bakarraren bidez egingo dira sartze- eta konexio-prozedura eta operazioa.
- Interkonexio-kostuak sorkuntza-instalazioaren jabeak ordainduko ditu. Sarean aldaketak egin behar badira, horiek ere sorkuntza-instalazioaren jabeak ordainduko ditu berak bakarrik erabiliko badu. Zenbait instalaziok erabiliko badute, kostua banatu egingo da.
- Sareko etengailu automatikoa zabaltzen denerako, sorgailuak sistemaren bat beharko du zentrala saretik deskonektatuko dela ziurtatzeko. Hori sortzailearen eta sareko jabearen artean adostu beharko da, kontuan hartuz birkonexio automatikoko gailuekin beharrezkoa den koordinazioa.
- Sorgailuaren maiztasun-babesa koordinaturik egongo da kargak kentzeko eta sorgailuak desakoplatzeko sistemarekin:
 - Maiztasun minimoa: 48 Hz 3 s-ko tenporizazio minimoarekin.
 - Maiztasun maximoa : 51 Hz tenporizazioa operazio-prozeduraren arabera.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa

Sorkuntza banatua. Konexioa.


5/9/1985 Ministro-agindua: 5000 kVA arteko zentral hidroelektrikoak eta autosorkuntzako zentralak sarean lan egiteko eta sarera konektatzeko arau administratibo eta teknikoak ematen dira.

•Gaurko araudiak erregimen berezi osora zabaldu du bere baliozkotasuna, behe tentsioko 100 kVA arteko fotovoltaikoa izan ezik, arau tekniko berriak agertzen diren arte.



•Baldintza orokorrak:

- Instalazioak ez du eraginik izango sarearen operazio- eta segurtasun-baldintzetan. Konpainiako langileek ezin izango dute lan-egoera arriskutsuetan egon instalazioaren eraginez.
- Sorturiko tentsioa sinusoidala izango da.
- Funtzionamendu- eta konexio-baldintzak sorgailuen potentziaren eta ezaugarrien arabera zehaztuko dira.
- Banaketa-sarea deskonektatzen bada, sorgailuak ezingo du tentsioa mantendu linean. Ahal bada, teledeskonexio-sistema bat jarriko da konpainia elektrikoaren azpiestazio edo transformazio-gunetik.
- Birkonexio automatikoa duten sareetan behar diren gailuak jarriko dira zentrala berriro ez konektatzeko, birkonexioa behin betikoa izan arte.
- Enpresa elektrikoek periodikoki, edo akats baten ondoren, aztertu ahal izango dute babes eta konexio gailuen erregulazio- eta mantentze-egoera.

5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Sorkuntza banatua. Konexioa.



5. gaia. Sorkuntzaren sare-konexioa Sorkuntza banatua. Konexioa.



ENERGIA ELEKTRIKOAREN SORKUNTZA

6. GAIA. SORGAILU TRIFASIKOAK

- 6.1 Sorgailu sinkronoak
 - 6.1.1 Sarrera
 - 6.1.2 Egitura
 - 6.1.3 Kitzikapen-sistemak
 - 6.1.4 Funtzionamendu-printzipioa
 - 6.1.5 Sinkronizazioa
 - 6.1.6 Erregulazioa
 - 6.1.7 Konpentsadore sinkronoa
 - 6.1.8 Funtzionamendu-mugak
- 6.2 Iman iraunkorreko sorgailu sinkronoa
- 6.3 Sorgailu asinkronoak
 - 6.3.1 Sarrera
 - 6.3.2 Egitura
 - 6.3.3 Funtzionamendu-printzipioa
- 6.4 Elikadura bikoitzeko sorgailu asinkronoak

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Sarrera.

- **Energia elektrikoaren iturri nagusia: zentral termikoak, nuklearrak eta hidroelektrikoak**

$$n = \frac{60f}{p}$$

n: biraketa-abiadura (rpm)
f: maiztasun elektrikoa (50 Hz)
p: polo-parea


- **Abiadura**

- Zentral termiko eta nuklearrak: abiadura handiak (turbosorgailuak)
 - Ohiko termikoak: 3000 rpm p=1
 - Nuklearrak PWR: 3000 rpm p=1
 - Nuklearrak BWR: 1500 rpm p=2
- Zentral hidroelektrikoak: abiadura txikiak
 - Pelton turbinak: 750 rpm, 375 rpm p=4, p=8
 - Francis turbinak: 150 rpm p=20
 - Kaplan turbinak: 100 rpm p=30

- **Makina sinkronoa sorgailu gisa**

Momentu eragilea
errotorean

Korronte zuzeneko
kitzikapen-korrontea
errotoreko harilean






Korronte alternoko tentsioa
estatoreko harilean

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Egitura.

➤ Errotorea

- Induktorea
- Korrante zuzena
- Turbosorgailuak: errotore zilindrikoa
 - Diametro txikia: <1,2 m
 - Indar zentrifugo handiak (200 m/s)
- Sorgailu hidraulikoak: polo irteneko errotorea
 - Diametro handiagoa: 20 m arte
 - Haril indargetzailea




6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Egitura.

➤ Polo irteneko errotorea

36 polo, 500 MVA, 15 kV,
 $I_f=2400$ A, 60 Hz, 200 rpm




6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Egitura.


➤ Errotore zilindrikoa

4 polo, $I_f=11,2$ kA



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Egitura.




6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Egitura.

➤ Estatorea


- Induzitua.
- Korrante alternoa.
- Izarrean konektaturiko haril trifasikoa.
- Tentsio izendatua potentzia izendatuaren funtzioan dago.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Egitura.

Estatorea




500 MVA, 15 kV
(200 rpm, 60 Hz)

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Egitura.

➤ Estatorea



722 MVA, 19 kV (3600 rpm, 60 Hz)

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Egitura.

➤ Sorgailuaren tamaina erabakitzen duten faktoreak:

➤ Makinaren potentzia

- Zenbat eta handiagoa potentzia, orduan eta handiagoa errendimendua.
 - 1 kW, % 50eko errendimendua
 - 10 MW, % 90eko errendimendua
 - 1000 MW, % 99ko errendimendua
- Zenbat eta handiagoa potentzia, orduan eta handiagoa potentzia/masa erlazioa.
 - 1 kW, 50 W/kg
 - 10 MW, 500 W/kg

➤ Hoztea: zenbat eta potentzia handiagoa, hozte-arazo gehiago


- <50 MW → aire bidezko hoztea
- 50-300 MW → hidrogeno bidezko hoztea
 - Hidrogenoaren abantailak airearekiko
 - Dentsitatea 1/14 aldiz airearena: zarata gutxiago eta aireztapen-galera gutxiago.
 - Bero espezifikoa 14 aldiz airearena: beroa metatzeko ahalmen handiagoa.
 - Bero-konduktibitatea 7 aldiz airearena: temperatura-gradiente txikiagoa.
 - Oxigenoa ez egoteak isolatzaileen bizia luzatzen du.
 - Hidrogenoaren zirkulazioa alternadorean
 - Induzituaren harila → Harilaren arteketan joan daiteke. Batzuetan, eroaleak pletina hutsez osaturik daude eta pletina barnetik doa.
 - Estatorearen nukleo magnetikoa → Hidrogenoa nukleo magnetikoan dauden kanal erradialeetatik igarotzen da.
 - Induktorearen harila → Harilaren arteketan joan daiteke. Batzuetan, eroaleak hutsak dira eta harila barnetik doa.
- 1000 MW: hidrogenoaren eta uraren bidezko hoztea; estatoreko harilean, eroale hutsen barnetik doa ura.

6. gaia. Sorgailu trifasikoak


Sorgailu sinkronoak. Egitura.

Potentzia eta hozte motaren arteko erlazioa turbosorgailuetan:

- 4 poloko sorgailu handiak (BWR nuklearra): H_2 eta H_2O bidezko hoztea.
- 2 poloko sorgailu handiak (PWR nuklearrak eta arruntak): H_2 eta H_2O bidezko hoztea.
- Potentzia ertaineko sorgailuak (termiko arruntak): H_2 bidezko hoztea.
- Potentzia ertaineko sorgailuak (ziklo konbinatuak eta beste batzuk): aire bidezko hoztea.
- Integraturiko potentzia txikiko sorgailuak (karkasa berean daude sorgailua eta kitzikapen-sistema): aire bidezko hoztea.
- Powerformer potentzia txiki eta ertaineko sorgailuak: egitura bereziko sorgailua 132 kV-ekoa




Alstom-en turbosorgailuak



Integraturiko airez hozturiko sorgailua

6. gaia. Sorgailu trifasikoak


Sorgailu sinkronoak. Egitura.




Hidrogenoaren zirkulazioa sorgailuan

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Egitura.



Estatoreko harilaren hoztea



6. gaia. Sorgailu trifasikoak


Sorgailu sinkronoak. Kitzikapen-sistemak.

- Makinaren borneetan tentsioa egonkorra izan dadin ahalbidetuko duen kitzikapen-korrontea eman behar du. Karga-aldaketen aurrean azkar erantzun behar du, sistemaren egonkortasuna mantentzeko.
- Balio tipikoak
 - Kitzikapen-tentsioa: 125 V - 600 V
 - Potentzia: sorgailuaren potentziaren araberakoa
 - 1 MVA-ko sorgailua: 25 kW (% 2,5)
 - 500 MVA-ko sorgailua : 2500 kW (% 0,5)
 - 1000 MVA-ko sorgailua : 4000 kW (% 0,4)
- Kitzikapen-sistemaren konfigurazioak
 - Korronte zuzeneko kitzikapen-sistema
 - Eskuilarik gabeko kitzikapen-sistema (brushless)
 - Kitzikapen estatikoa edo autokitzikapena
 - arrunta
 - compound

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Kitzikapen-sistemak.


- Korrante zuzeneko kitzikapen-sistema
 - Kitzikagailu nagusia korrante zuzeneko makina bat da.
 - Kitzikagailu pilotua korrante zuzeneko beste makina bat da.
 - Kitzikapen korrantea (I_x) tentsio-erreguladore baten (AVR) bidez erregulatu duen harila inductoreko korrantearen (I_c) bidez kontrolatzen da.
 - Kitzikagailu nagusitik sorgailuaren errotorean korrante zuzena sartzeko, eskula eta marruskadura eraztun-sistema bat behar da.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Kitzikapen-sistemak.

- Eskularik gabeko kitzikapen-sistema (brushless)
 - Kitzikagailu nagusia alderantzikaturiko korrante alternoko makina bat da (korrante zuzeneko estatorea eta korrante alternoko errotorea) eta errotorean artezgailu bat dauka.
 - Kitzikagailu pilotua iman iraunkorreko makina sinkrono bat da eta estatorean artezgailu bat dauka.
 - Kitzikapen-korrantea (I_x) tentsio-erreguladore baten (AVR) bidez erregulatu duen harila inductoreko korrantearen (I_c) bidez kontrolatzen da.





Kitzikagailuaren errotorearekin batera doan artezgailua

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Kitzikapen-sistemak.



- Kitzikapen estatikoa edo autokitzikapen arrunta
 - Kitzikapen nagusia edo kitzikapen pilotua sorgailuaren estatoretik kitzikapen-transformadore baten bidez zuzenean elikatzen den korrante zuzeneko sistema estatikoa da.
 - Kitzikapen-korrantea artezgailuaren bidez kontrolatzen da (kontrolaturiko tiristoreak).
 - Arazoa: sorgailuaren borneetan hutsegite bat gertatzen bada, kitzikapen-transformadorean tentsioa galtzen da eta kitzikapena galdu egiten da.
 - Sarerik gabe abioan jartzeko, korrante zuzeneko beste iturri bat behar dute (black start).



G : Synchronous machine **90R** : Voltage setting unit
PT : Potential transformer **70G** : Manual excitation setting unit
CT : Current transformer **AVR** : Automatic voltage regulator
41 : Field circuit breaker **MEC** : Manual excitation controller
THY : Thyristor bridge **U-PHC** : Phase control unit
EXT : Excitation power transformer **U-ISO** : Isolation unit

6. gaia. Sorgailu trifasikoak


Sorgailu sinkronoak. Kitzikapen-sistemak.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Kitzikapen-sistemak.

- Kitzikapen estatikoa edo autokitzikapen konposatua:
 - Sorgailuaren borneetan zirkuitulabur bat dagoenean gertatzen den kitzikapenaren galera saihesten du.
 - Sorgailuaren estatoreko korrontearekiko proportzionala den tentsioa ematen duen bigarren transformadore bat erabiltzen du. Tentsio hori besteari gehitzen zaio. Normalean, (korrante izendatua) bigarren tentsio hori arbuigarria da. Zirkuitulaburrean balio handia hartzen du eta errotorearen kitzikapena mantentzen du.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak




Sorgailu sinkronoak. Funtzionamendu-printzipioa.

➤ Hutseko funtzionamendua

- Dagoen fluxu magnetiko bakarra errotoreak sorturikoa da.
- Induzituriko tentsioa biraketa-abiadurarekiko eta fluxu magnetikoarekiko proportzionala da.

$$E_o = 4,44N\Phi f$$

- Hutseko kurba (biraketa-abiadura konstantea eta kitzikapen-korrontearen aldaketa).



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Funtzionamendu-printzipioa.

➤ Kargako funtzionamendua

- Sorgailuaren estatorea karga bati konektatzen bazaio, korrante- sistema orekatu batek zirkulatuko du bertatik.
 - Korrante horiek sinkronismoko abiaduran biratzen duen anplitude konstanteko eremu magnetiko birakaria (induzituaren erreakzioaren mmf) sortzen dute. Eremu hori errotoreak sorturikoarekin konbinatzen da handiagotuz (erreakzio magnetizatzailea) karga kapazitiboa denean, edo txikiagotuz (erreakzio desmagnetizatzailea) karga induktiboa denean. Sortzen den mmf uhinak estatorean induzituriko emf (E_r) desberdina da hutseko funtzionamenduarenarekiko.
 - Estatorearen harilean (induzitua) tentsio-erorketa gertatzen da honako faktore hauengatik:
 - Sakabanatze-erreaktantzia
 - Erresistentzia (% 1-2, arbuigarria)

- Sorgailuen borneetako V eta hutseko funtzionamenduko E_o desberdinak dira.


Tentsio-erregulazioa:
$$\varepsilon = \frac{E_o - V}{V}$$

6. gaia. Sorgailu trifasikoak


Sorgailu sinkronoak. Funtzionamendu-printzipioa.

➤ Kargako funtzionamendua: fase-diagrama (polo leunak)

$$E_r = V + RI + jX_{\sigma} I$$



$$E_o = V + RI + jX_s I$$



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Sinkronizazioa.

■ Zentralaren sare-konexioa egin aurretik, sorgailuen eta sarearen arteko sinkronizazioa egin behar da. Lau baldintza bete behar dira sorgailu bat eta sarea sinkronizaturik egoteko:

- Sorkuntza-maiztasunak sare-maiztasunaren berdina izan behar du.
- Sorkuntza-tentsioak sare-tentsioaren berdina izan behar du.
- Sorkuntza-tentsioa sare-tentsioarekin fasean egon behar da.
- Sorgailuaren fase-sekuentziak eta sarearenak berdinak izan behar dute.

■ Sinkronizazio-ekipamendua:

- Bi maiztasun-neurgailu (sarea eta sorgailua).
- Bi voltmetro (sarea eta sorgailua).
- Sinkronoskopio bat.

■ Alternadorearen eta sarearen arteko sinkronizazioa egiteko, honako pauso hauek jarraitzen dira:

1. Turbinaren abiadura-erreguladorearen doiketa eginez, sorkuntza-maiztasuna sarearenaren antzekoa izatea lortzen da (doiketa lodia).
2. Kitzikapenaren doiketa eginez, sorkuntza-tentsioa (E_0) sare-tentsioaren (E) berdina izatea lortzen da.

6. gaia. Sorgailu trifasikoak



Sorgailu sinkronoak. Sinkronizazioa.

3. Sinkronoskopioaren bidez, E_0 eta E -ren arteko desfasea ikus daiteke. Orratzak zero markatzen duenean tentsioak fasean daude. Orratzak ordulariaren noranzkoan biratzen badu, sorkuntza-maiztasuna sare-maiztasuna baino handiagoa da. Aldiz, orratzak ordulariaren aurkako noranzkoan biratzen badu, sorkuntza-maiztasuna sare-maiztasuna baino txikiagoa da. Kasu horietan, maiztasuna berdintzeko, turbinaren abiadura-erreguladorearen doiketa fina egiten da.



4. Sorkuntza-tentsioa (E_0) eta sare-tentsioa (E) berdinak diren ikusten da berriro eta fase-sekuentziak berdinak direla egiaztatzen da. Orduan, etengailua itxi egiten da eta zentrala sareari konektaturik gelditzen da.


■ Zentral berrietan, sinkronizazioa automatikoki egiten da. Hala ere, posible da eskuzko sinkronizazioa egitea ere.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Erregulazioa.


- **Abiadura-erreguladorea:** turbinara doan fluido (ura, lurruna) kantitatearen kontrola egiten du.
- **Tentsio-erreguladorea:** kitzikapen-korrontearen balioa kontrolatzen du.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Funtzionamendu isolatua.

- Sorgailuak karga bat elikatzen du modu isolatuan.
 - Sorgailuak emandako potentzia kargak eskatzen duena da.
 - Sorgailuaren potentzia-faktorea kargak duena da.
 - Maiztasuna sorgailu sinkronoaren abiaduraren araberakoa da.
 - Irteerako tentsioan eragiten duten faktoreak:
 - Biraketa-abiadura
 - Kitzikapen-korrontea
 - Induzituaren korrontea
 - Kargaren potentzia faktorea
 - Karga induktiboa: efektu desmagnetizatzailea
 - Karga kapazitiboa: efektu magnetizatzailea





- Abiadura erreguladorea: errotorearen biraketa-abiadura mantentzea.
 - Kargak eskaria handiagotzen duenean, sorgailuaren abiadura txikiagotu egiten da. Abiadura-erreguladoreak turbinara doan fluido kantitatea handiagotzen du, abiadura handiagotzeko maiztasun-kontsigna balioa lortu arte.

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Funtzionamendu isolatua.



- Tentsio-erreguladorea: sorgailuaren borneetako tentsioa mantentzea kitzikapen-intentsitatean eraginez.
 - Tentsio-erreguladoreak kitzikapena aldatzen du, fluxua aldatuz eta indar elektroeragilea egoera berrira egokituz



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Sarera konektaturiko sorgailua.

- Potentzia infinituko sarea: sorgailu asko konektaturik dauden sarea → Sorgailu baten potentzia oso txikia da potentzia osoarekiko → $V=kte$, $f=kte$ (sareak finkatzen ditu)
- Makinak sareari emandako potentzia aktiboa eta erreaktiboa.




$$P = \frac{3E_0V}{X_s} \sin \delta$$

$$Q = 3 \frac{E_0V \cos \delta - V^2}{X_s}$$

➤ $E_0 \cos \delta > V$ bada, orduan $Q > 0$ (induktiboa) eta makina gaintzikaturik dagoela esaten da.


➤ $E_0 \cos \delta < V$ bada, orduan $Q < 0$ (kapazitiboa) eta makina azpikizaturik dagoela esaten da.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Sarera konektaturiko sorgailua.


➤ Tentsio-erreguladorea → Potentzia erreaktiboaren kontrola kitzikapenaren kontrolaren bidez



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Sarera konektaturiko sorgailua.

➤ Abiadura-erreguladorea → Potentzia aktiboaren kontrola, turbinak emandako potentzia mekanikoa kontrolatuz.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak


Sorgailu sinkronoak. Konpentsadore sinkronoa.

- Konpentsadore sinkronoa: makina sinkronoak ez du potentzia aktiborik ematen ez xurgatzen ($P=0$); potentzia erreaktiboa eman edo xurgatzen du, bakarrik, kitzikapenaren kontrolaren bidez.




Sorgailua modu higikorrean ($P=0, Q=0$)

Kitzikapenean eraginez



$Q > 0$ (sareari Q ematen dio)

Sorgailu gainkitzikatua




$Q < 0$ (saretik Q xurgatzen du)

Sorgailu azpikitzikatua

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu sinkronoak. Funtzionamendu-mugak.

- Makina eragilearen potentzia izendatua.
- Alternadorearen itxurazko potentzia izendatua. Induzituriko korronea mugatzen du, tenperatura handiegia izan ez dadin.
- Kitzikapen-korronea maximoa. Errotoreko harilaren berokuntzak mugatzen du.
- Egonkortasun-baldintzak bete daitezzen δ momentu-angulu maximoa.




6. Gaia. Sorgailu trifasikoak

Iman iraunkorreko sorgailu sinkronoak


- Errotoreko harilaren ordeaz iman iraunkorrak erabiltzen dituen sorgailu sinkronoa.
- Kitzikapen-sistematik ez da behar.
- Errotoreko kobre-galerak desagertzen dira eta ez da beharrezko zati hori hoztea.
- Polo-pare kopuru handia.
- Aplikazioa: abiadura aldakorreko aerosorgailuak.

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Iman iraunkorreko sorgailu sinkronoak



ABB



Mitorres

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu asinkronoak

- Gehien erabiltzen den makina elektriko birakaria da. Hala ere, motor gisa aurkitzea da arruntena, eta sorgailu gisa gutxiagotan erabiltzen da.

$$p \cdot n = 60 \cdot f$$

n: biraketa-abiadura (rpm)

f: maiztasun elektriko sinkronoa (50 Hz)


p: polo-pare kopurua

- Makina sinkronoarekin alderatuz, makina asinkronoak ez dauka berezko kitzikapenik (ez dago errotoreko korrante zuzenaren zirkulaziorik) eta saretik hartzen da eremu magnetikorako behar den korrantea.

- Makina asinkronoaren funtzionamendua sorgailu gisa:

Errotoreko momentu motorra (turbina sinkronismoko abiaduraren gaitetik)

Korrante alternoko tentsioa estatorean (eremu magnetikoa abiadura sinkronoan biratuz)



Estatorean sorturiko eta sarean injektaturiko korrante alternoko intentsitatea

6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu asinkronoak. Egitura.


- Osagai nagusiak:

- Estatorea:

- Osagai finkoa
- Haril trifasikoa

- Errotorea:

- Osagai mugikorra
- Zirkuitulaburrean dagoen harila




6. gaia. Sorgailu trifasikoak


Sorgailu asinkronoak. Egitura.

➤ Estatorea. Osagaiak

- Nukleo magnetikoa
 - Pilaturiko xafla magnetikoz osaturik.
 - Estatoretik errotorera doan fluxu magnetikoa banatzen du.
- Zirkuitu elektrikoa
 - 120°-ra banaturiko haril trifasikoa.
 - Zirkuitu magnetikoko arteketan sarturiko harilez osaturik:
 - Makina txikiak ($U_n < 600 \text{ V}$): esmaltaturiko kobre hariak
 - Makina handiak ($U_n > 600 \text{ V}$): aurretik forma emandako kobre barrak



Esmaltaturiko kobre hariak




Aurretik forma emandako kobre barrak

6. gaia. Sorgailu trifasikoak


Sorgailu asinkronoak. Egitura.

➤ Errotorea. Osagaiak

- Nukleo magnetikoa
 - Pilaturiko xafla magnetikoz osaturik.
 - Estatorera doan fluxu magnetikoa kontzentratzen du.
- Zirkuitu elektrikoa
 - Zirkuitulaburrean konektaturiko espirez osaturiko harila.
- Motak:
 - Urtxintxa-kaiolekoa: eroaleak urturiko aluminioz eginak edo soldaturiko kobrezko barrak dira.
 - Harilekoa: eroalea esmaltaturiko kobre haria da.




Urtxintxa-kaiola. Soldaturiko kobrezko barrak



Urtxintxa-kaiola. Aluminio urtua


6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu asinkronoak. Egitura.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu asinkronoak. Funtzionamendua.




6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Sorgailu asinkronoak. Funtzionamendua.

Indukzio-makinaren eredua erregimen iraunkorrean

$$V_s = R_s \cdot I_s + jX_s \cdot I_s + jX_m \cdot (I_s - I_r)$$
$$V_r = 0 = \frac{R_r}{s} \cdot I_r + jX_r \cdot I_r + jX_m \cdot (I_r - I_s)$$



$$s = \frac{\omega_s - \omega_r}{\omega_s}$$



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Elikadura bikoitzeko sorgailu asinkronoa (DFIM)

- Errotore harilkatua du eta kanpotik marruskadura-eraztun batzuen bidez elikatzen da.
- Errotorean maiztasun aldakorreko korrantea potentzia-bihurgailu baten bidez.
- Ez du konpentsazio kapazitiborik behar.
- Potentzia aktiboa eta potentzia erreaktiboa independenteak dira.
- Aplikazioa: abiadura aldakorreko aerosorgailuak.



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Elikadura bikoitzeko sorgailu asinkronoa (DFIM)

■ Funtzionamendu-printzipioa:

- Estatorea f_s maiztasuneko sare trifasiko batera konektaturik dagoen makina asinkrono batean, n_s da eremu magnetiko birakariaren abiadura:

$$n_s = \frac{60 \cdot f_s}{p}$$

- Errotorea f_r maiztasuneko sistema trifasiko batekin elikatzen bada, errotoreak n_r abiaduran biratuko duen eremu magnetiko bat sortuko du:

$$n_r = \frac{60 \cdot f_r}{p}$$


➔ Geldirik dagoen erreferentzia batekiko

$$n_s = n + n_r$$

- Makinak momentua eman dezan, estatoreko eta errotoreko eremu magnetikoek abiadura berdinean biratu behar dute.


$$n_s = n + n_r$$

■ Zirkuitu baliokidea erregimen iraunkorrean:



6. gaia. Sorgailu trifasikoak

Elikadura bikoitzeko sorgailu asinkronoa (DFIM)



ENERGIA ELEKTRIKOAREN SORKUNTZA

7. GAIA. SORGAILU ELEKTRIKOEN EGONKORTASUNA

7.1 Sarrera. Definizioa eta sailkapenak.

7.2 Sorgailu sinkronoaren eredu sinplifikatua. Oszilazio-ekuazioa.

7.3 Egonkortasun iragankorra.

7.4 Ereduen eragina angelu-egonkortasunean.

7.5 Tentsio-egonkortasuna.

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna Sarrera. Definizioa.

Egonkortasunaren arazoak eragina dauka energia elektrikoaren sistemen plangintzan, ustiapenean, kontrolean eta babesean. Egonkortasunak garraio-lineetan jartzen dituen mugak muga termikoen azpitik daude.

Egonkortasuna: sistemak operazio-baldintza izendatuetan oreka-egoera batean mantentzeko duen ahalmena, eta perturbazio baten ondorioz onargarria den oreka-egoera berriantzeko duen ahalmena.


Agerpena:

- Makinen sinkronismo galera:
 - Iraupen luzeko akatsen eraginez.
 - Tentsio-erreguladoreen erantzunaren ondorioz.
 - Beste kontrol azkarren erantzunaren ondorioz.
- Tentsioaren murrizketa jarraitua eta kontrolaezina:
 - Potentzia errektiboaren erreserbak agortzeagatik.
 - Sarean gertatutako akatsengatik.
 - Sistemaren degradazioagatik.

Fenomeno dinamikoa da:

- Sistemaren eta bere osagaien dinamika ezagutu behar da.

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna Sarrera. Fenomenoen dinamika.



7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna Sarrera. Sailkapena.

Fenomeno fisikoaren ezaugarrien arabera:

- Angelu-egonkortasuna: makinaren momentu-angeluen aldaketa:
 - Makina sinkronoak sistemari hark eskatzen duen potentzia aktiboa emateko gaitasuna.
 - Sistemaren makina sinkrono guztien funtzionamendu sinkronizatua.
- Tentsio-egonkortasuna: makinek emandako tentsioen aldaketak:
 - Sistemari hark eskatzen duen potentzia erreaktiboa emateko gaitasuna.
 - Sistemaren sorgailu multzoaren ahalmena, sistemaren zerbitzu-tentsioa mantentzeko.

$$P_G - P_D + P_{\text{perd}}$$

$$S_G = S_D + S_{\text{perd}}$$

$$Q_G = Q_D + Q_{\text{perd}}$$

Dinamikaren arabera:


- Epe motzeko edo dinamika azkarreko egonkortasuna: sorgailua + kontrol primarioak.
- Epe luzeko edo dinamika geldoko egonkortasuna: turbina + kontrol sekundarioak.

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna


Sarrera. Sailkapena.

Perturbazioaren tamainaren arabera:

- Perturbazio handiko egonkortasuna:
 - Oszilazio handiak.
 - Eredu ez-lineala.




- Perturbazio txikiko egonkortasuna:
 - Oszilazio txikiak.
 - Eredu lineala.



7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna

Sarrera. Sailkapena.



7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna

Eredu sinplifikatua. Eredu mekanikoa.

Momentu-angelua:

- Erregimen iraunkorra: $\theta = kte$
- Perturbazioa: $\theta = f(t)$

Errotoreko momentuen oreka:

$$T_m = T_e + T_i + T_a$$

- Momentu mekanikoa:

$$T_m = T_{m0} + \sum T_h \sin(h\Omega_0 t - \Psi_h)$$

- Momentu elektromagnetikoa:



$$T_e = \frac{P}{\Omega}$$

- Inertzia-momentua:

$$T_i = J \frac{d\Omega}{dt}$$

- Moteltze-momentua:

$$T_a = K_a (\Omega - \Omega_0)$$



7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna

Eredu sinplifikatua. Eredu mekanikoa.

Errotorearen dinamika:

$$J \frac{d\Omega}{dt} = T_m - T_e - K_a (\Omega - \Omega_0) \longrightarrow \frac{J}{T_{base}} \frac{d\Omega}{dt} = \frac{T_m}{T_{base}} - \frac{T_e}{T_{base}} - \frac{K_a}{T_{base}} (\Omega - \Omega_0)$$

$$T_{base} = \frac{S_{base}}{\Omega_{base}} = \frac{S_{base}}{\Omega_0}$$

$$\frac{J\Omega_0^2}{S_{base}\Omega_0} \frac{d\Omega}{dt} = t_m - t_e - \frac{K_a\Omega_0^2}{S_{base}\Omega_0} (\Omega - \Omega_0)$$

$$H = \frac{1/2 J\Omega_0^2}{S_{base}} \quad D = \frac{K_a\Omega_0^2}{S_{base}}$$

$$\frac{2H}{\Omega_0} \frac{d\Omega}{dt} = t_m - t_e - \frac{D}{\Omega_0} (\Omega - \Omega_0) \xrightarrow{\omega = \Omega \cdot p} \frac{2H}{\omega_0} \frac{d\omega}{dt} = t_m - t_e - \frac{D}{\omega_0} (\omega - \omega_0)$$


$$\frac{2H}{\omega_0} \frac{d\omega}{dt} = p_m - p_e - \frac{D}{\omega_0} (\omega - \omega_0)$$

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna


Eredu sinplifikatua. Eredu elektrikoa.

Errotore zilindrikoko makina

- Erregimen iraunkorra:



- Erregimen iragankorra:



7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna


Eredu sinplifikatua. Ereduen konexioa.

Erregimen iraunkorra:

- hutsean $\alpha = \Omega_0 \cdot t$
- kargan $\alpha = \Omega_0 \cdot t + \theta$

Erregimen iragankorra:

- angelu mekanikoa
 $\alpha = \Omega_0 \cdot t + \theta \xrightarrow{\theta = \frac{\delta}{p}} \alpha = \Omega_0 \cdot t + \frac{\delta}{p}$
- abiadura mekanikoa
 $\Omega = \frac{d\alpha}{dt} = \Omega_0 + \frac{d\theta}{dt} \xrightarrow{\Omega = \frac{\omega}{p}} \omega = \omega_0 + \frac{d\delta}{dt}$
- azelerazio mekanikoa
 $\frac{d\Omega}{dt} = \frac{d^2\theta}{dt^2} \xrightarrow{\quad} \frac{d\omega}{dt} = \frac{d^2\delta}{dt^2}$
- oszilazio-ekuazioa



$$\boxed{\frac{2H}{\Omega_0} \frac{d\Omega}{dt} = t_m - t_e - \frac{D}{\Omega_0} (\Omega - \Omega_0)} \xrightarrow{\quad} \boxed{\frac{2H}{\omega_0} \frac{d^2\delta}{dt^2} = p_m - p_e - \frac{D}{\omega_0} (\omega - \omega_0)}$$


7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna

Egonkortasun iragankorra. Azalaren irizpidea.

Egonkortasun iragankorra: sistemako makinen egonkortasuna, makinen errotereko angelu-aldaketa handiak eragiten dituzten perturbazioen aurrean.

Azalaren irizpidea:

- Makinak perturbazio baten ondoren egonkortasuna mantentzen duen ala ez zehazten du.
- Ez du kalkulatzen denboran zehar duen ibilbidea.
- Sinplifikazioak:
 - Potentzia infinituko korapilo batera konektaturiko makina sinkronoa.
 - Moteltzerik gabe ($D=0$).
 - Kontrol primario gabeko sorgailuaren eredu sinplifikatua.



$$\frac{2H}{\omega_0} \frac{d^2 \delta}{dt^2} = p_m - p_e$$



$$\frac{d^2 \delta}{dt^2} = \frac{\omega_0}{2H} \cdot (p_m - p_e)$$

$$d \left[\left(\frac{d\delta}{dt} \right)^2 \right] = \frac{\omega_0}{H} \cdot (p_m - p_e) d\delta$$

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna

Egonkortasun iragankorra. Azalaren irizpidea.



Hasierako egoera: sinkronismoa

- Abiadura: ω_0
- Angelua: δ_0
- Oreka: $p_{e0} = p_{m0} = \frac{E_0 \cdot V}{X_d} \sin(\delta_0)$

Perturbazioa: p_m igo

• **0-1 ibilbidea (azelerazioa):**

- Azelerazioa:
 - Maximoa 0 $\left. \frac{d^2 \delta}{dt^2} \right|_{\delta_0} = \frac{\omega_0}{2H} \cdot (p_{m1} - p_{e0}) > 0$
 - Zero 1 $\left. \frac{d^2 \delta}{dt^2} \right|_{\delta_1} = \frac{\omega_0}{2H} \cdot (p_{m1} - p_{e1}) = 0$
- Abiadura
 - Sinkronoa 0
 - Maximoa 1



$$\int_{\delta_0}^{\delta_1} d \left[\left(\frac{d\delta}{dt} \right)^2 \right] = \int_{\delta_0}^{\delta_1} \frac{\omega_0}{H} \cdot (p_m - p_e) d\delta \quad \rightarrow \quad \int_{\delta_0}^{\delta_1} (p_m - p_e) d\delta = \frac{H}{\omega_0} \cdot \left(\frac{d\delta}{dt} \right)^2 \Big|_{\delta_1} = A_{acel}$$

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna

Egonkortasun iragankorra. Azalaren irizpidea.

• 1-2 ibilbidea (dezelerazioa):

• Dezelerazioa:

• Zero 1 $\left. \frac{d^2\delta}{dt^2} \right|_{\delta_1} = \frac{\omega_0}{2H} \cdot (p_{m1} - p_{e1}) = 0$


• Maximoa 2

$\left. \frac{d^2\delta}{dt^2} \right|_{\delta_2} = \frac{\omega_0}{2H} \cdot (p_{m1} - p_{e2}) < 0$

• Abiadura

• Maximoa 1

• Sinkronoa 2



$$\int_{\delta_1}^{\delta_2} d \left[\left(\frac{d\delta}{dt} \right)^2 \right] = \int_{\delta_1}^{\delta_2} \frac{\omega_0}{H} \cdot (p_m - p_e) d\delta \rightarrow \int_{\delta_1}^{\delta_2} (p_m - p_e) d\delta = \frac{H}{\omega_0} \cdot \left(\frac{d\delta}{dt} \right)^2 \Big|_{\delta_1}^{\delta_2} = A_{fre}$$

Azalaren irizpidea:

• Egonkortasuna mantentzen da, baldin eta 2 puntu batera iristen bada, non abiadura sinkronismokoa izatera bueltatzen baita.

• Egonkortasuna mantentzen da, azelerazio-azalera dezelerazio-azalaren berdina bada.

$$|A_{acel}| = |A_{fre}|$$

$$A_{acel} = \int_{\delta_0}^{\delta_1} (p_m - p_e) d\delta = \frac{H}{\omega_0} \cdot \left(\frac{d\delta}{dt} \right)^2 \Big|_{\delta_0}^{\delta_1}$$

$$A_{fre} = \int_{\delta_1}^{\delta_2} (p_m - p_e) d\delta = \frac{H}{\omega_0} \cdot \left(\frac{d\delta}{dt} \right)^2 \Big|_{\delta_1}^{\delta_2}$$

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna


Egonkortasun iragankorra. Azalaren irizpidea.

Formulazio orokorra:


• Azelerazio-azalera dezelerazio-azalera maximoa baino txikiagoa bada, makina egonkor mantenduko da.

• Azelerazio-azalera dezelerazio-azalera maximoaren berdina bada, makina kritikoki egonkorra den egoera batean egongo da. Edozein perturbazio txikik sinkronismotik atera dezake, egonkortasuna galduz


• Azelerazio-azalera dezelerazio-azalera maximoa baino handiagoa bada, makinak egonkortasuna galduko du. Horrela, abiadura etengabe handitu eta sinkronismoa galduko da.




1 adibidea: potentzia mekanikoaren egoera.



Egonkorra



Kritikoki egonkorra





Desegonkorra

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna

Egonkortasun iragankorra. Azalaren irizpidea.

2 adibidea: akats trifasikoa sorgailuaren borneetan.



Aplikazioa: akatsa garbitzeko dagoen denbora kritikoaren kalkulua.

$$|A_{acel}| = |A_{fre}| \Rightarrow \int_{\delta_0}^{\delta_{crit}} p_m d\delta = \int_{\delta_{crit}}^{\delta_2} (P_{max} \sin\delta - p_m) d\delta \Rightarrow \cos\delta_{crit} = \cos\delta_2 + \frac{p_m}{P_{max}} (\delta_2 - \delta_0)$$

Akatsean zehar:




$$\frac{2H}{\omega_0} \frac{d^2\delta}{dt^2} = p_m \Rightarrow \frac{d\delta}{dt} = \frac{\omega_0}{2H} p_m t \Rightarrow \int_{\delta_0}^{\delta} d\delta = \int_0^t \frac{\omega_0}{2H} p_m t dt \Rightarrow \delta - \delta_0 = \frac{\omega_0}{2H} p_m \frac{t^2}{2}$$

$$t_{crit} = \sqrt{\frac{4H}{\omega_0 p_m} (\delta_{crit} - \delta_0)}$$

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna

Egonkortasun iragankorra. Azalaren irizpidea.

3 adibidea: zirkuitu bikoitz bateko linea baten galera akats trifasiko baten eraginez.



7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna Egonkortasun iragankorra. Zenbaki-ebazpena.

Oszilazio-ekuazioaren soluzioa:

- Lehen ordenako ekuazio diferentzialen sistemaren zenbaki integrazioa.
- Egonkortasunaren azterketa, makinaren aldagaien denbora-bilakaera aztertuz.

$$\frac{d^2\delta}{dt^2} = \frac{\omega_0}{2H} \left[p_m - p_e - \frac{D}{\omega_0} (\omega - \omega_0) \right] \longrightarrow \begin{cases} \frac{d\delta}{dt} = \omega - \omega_0 \\ \frac{d\omega}{dt} = \frac{\omega_0}{2H} \left[p_m - p_e - \frac{D}{\omega_0} (\omega - \omega_0) \right] \end{cases}$$

Eulerren iragarpen-zuzenketa algoritmoa

1. Iragarpena

2. Zuzenketa $[x]_{i+1,p} = [x]_i + [\dot{x}]_i \cdot \Delta t$

$$[x]_{i+1,c} = [x]_i + ([\dot{x}]_i + [\dot{x}]_{i+1,p}) \cdot \frac{\Delta t}{2}$$

$$[x] = \begin{bmatrix} \delta \\ \omega \end{bmatrix} \quad [\dot{x}] = \begin{bmatrix} \frac{d\delta}{dt} \\ \frac{d\omega}{dt} \end{bmatrix}$$

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna Egonkortasun iragankorrean eragina

Akatsak garbitzearen denbora kritikoa eragina.

Adibidea:

- Potentzia infinituko korapilo batera konektaturiko sorgailua.
- Akats trifasiko bat mantentzearen denbora kritikoa.

Eredua	Denbora kritikoa (ms)
Simplifikatua	236
Zehatza (sorgailua)	309
Zehatza (sorgailua+kitzikapena)	323
Zehatza (sorgailua+kitzikapena+abiadura)	331


Eraginak eta ondorioak:

- Eredua konplexuago egitean handiago egiten da denbora kritikoa.
- Eredu sinplifikatuak emaitza kontserbadoreegiak ematen ditu.
- Sorgailua xehetasunez irudikatzean, barne-moteltzea kontuan hartzen da fluxu-loturen aldaketa dela eta.
- Kitzikapen-kontrolak eragin handiagoa dauka egonkortasuna mantentzean, abiadura-kontrolak baino.


7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna Tentsio-egonkortasuna

- Tentsio-egonkortasuna: perturbazio baten ondoren, sistema batek korapilo guztietan tentsio egokiak mantentzeko daukan ahalmena.

Adibidea: eskari elektrikoaren igoera, hotza zela eta, 2001eko abenduan.




Espainiako penintsulako sistema elektrikoaren eskariaren bilakaera 2001eko abenduaren 17an.




Madrilgo erkidegoko eskariaren eta San Sebastián de los Reyes-eko (400 kV) tentsioaren bilakaera 2001eko abenduaren 17an.

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna Tentsio-egonkortasuna



$$\underline{E}_S = \underline{V}_R + \underline{Z}_{LN} \cdot \underline{I}$$

$$\underline{S}_R = P_R + jQ_R = \underline{V}_R \cdot \underline{I}^*$$



P-V kurbak:

- P potentzia balio bakoitzarentzat bi V tentsio-balio daude (goikoa operazio-puntu egonkorragi dagokio).
- Potentzia-faktore jakin batentzat transmiti daitekeen potentziaren balio maximo bat dago.
- Kargaren gehiegizko handitzeak tentsioaren beherakada jarraitua eragiten du eta, azkenik, sistemaren desegonkortasuna.

7. gaia. Sorgailu elektrikoaren egonkortasuna

Tentsio-egonkortasuna

Tentsio-kolapsoa: tentsio-desegonkortasuna sortzen duen zenbait gertakizunen ondorio da, eta tentsio-balio txikiak agertzen dira sistemaren zati handi batean.

Tentsio-kolapsoaren egoera ohikoa:

- Kontsumo-guneetatik gertu dauden zentralak geldirik daude eta, ondorioz, garraio-lineak oso kargaturik daude eta potentzia errektiboaren erreserba txikia da.
- Linea baten galerak aldameneko lineetan karga eta potentzia errektiboko galerak igotzea eragiten du eta, ondorioz, igo egingo da potentzia errektiboaren eskaria ere.
- Tentsioaren beherakada kontsumoguneetan, potentzia errektiboaren igoeraren eraginez. Horrek kontsumoa murriztea eragiten du, eta, ondorioz, lineetako potentzia-fluxua. Hala ere, sorgailuek berehala igoarazten dute tentsioa kitzikapena igoz eta potentzia errektiboa emanez. Ondorioz, sorgailuen transformadore eta lineetan zehar doan potentzia errektiboa handiagotu egingo da, eta tentsioa erori egingo da.
- Garraio-lineetan gertatzen den tentsio-beherakadak banaketa-sarean eragiten du, baina hartune aldakorreko transformadoreak banaketa-aldean tentsioari eusten saiatuko dira. Ondorioz, garraio-lineetako fluxua handiagotu egingo da, tentsio-erorketa handiagoak izango dira, eta sorgailuek eman beharreko potentzia errektiboa ere bai.
- Pixkanaka, sorgailuak bere potentzia errektiboaren mugara iristen dira. Muga horretara iristean, sorgailu baten tentsioa jaisten hasten da. Horrek estatoreko korronea igotzea eragiten du, eta horrek potentzia errektiboa mugatzen du estatorea gehiegi berotu ez dadin. Potentzia errektiboaren gabezia beste sorgailu batzuek emango dute eta, horrela, gero eta sorgailu gehiago iritsiko dira bere mugara. Gainera, tentsioa murrizten denean, murriztu egiten da kondentsadore multzoen eraginkortasuna.
- Prozesuak tentsioaren beherakada handia eta zabaldua eragin dezake. Sorgailuen arteko sinkronismoa gal daiteke eta handiagoa edo txikiagoa izan daitekeen itzalaldi bat ager daiteke.

8. GAIA. ZENTRALEN KONTROLA

- 8.1 Sarrera
- 8.2 Sorgailuaren kontrol primarioa
 - 7.2.1 Tentsioaren kontrol primarioa
 - 7.2.2 Maiztasunaren kontrol primarioa
- 8.3 Tentsioaren kontrol sekundarioa
- 8.4 Maiztasunaren kontrol sekundarioa (AGC)
- 8.5 Kontrol tertziarioa

8. gaia. Zentralen Kontrola Sarrera

■ Sistema elektriko batean, beharrezkoa da funtzionamendu-aldagai guztiak muga batzuen barnean mantentzea.

■ Kontrolatzen diren aldagaiak:

■ Tentsioa, balio izendatuaren inguruko banda batean:

390 kV – **400 kV** – 420 kV
205 kV – **220 kV** – 245 kV

Nivel de tensión	Fallo simple (N-1) de línea, transformador, grupo o reactancia	Fallo de doble circuito o de grupo y línea (N-2)
220 kV	205-245 kV	200-245 kV
400 kV	380-435 kV	375-435 kV

■ Maiztasuna, balio izendatuaren inguruko banda batean:

49,85 Hz – 50 Hz – 50,15 Hz

Kontrol motak:

■ *Tentsioaren kontrola.* Potentzia errektiboaren fluxuekin erlazionaturik dago. Potentzia errektiboaren sorkuntzaren eta kontsumoaren arteko desorekek tentsioaren aldaketa lokalak sortzen dituzte. QV kontrola.

■ *Maiztasunaren kontrola.* Potentzia aktiboaren fluxuekin erlazionaturik dago. Potentzia aktiboaren sorkuntzak eta kontsumoaren arteko desorekek maiztasunaren aldaketa globalak sortzen dituzte sisteman. Pf kontrola.

8. gaia. Zentralen Kontrola Sarrera

■ Nahiz eta maiztasuna eta tentsioa akoplaturik egon, kontrolak desakoplaturik daudela (independentek direla) suposatzen da:

- Potentzia aktiboaren aldaketek maiztasun-aldaketak eragiten dituzte batez ere.
- Potentzia errektiboaren aldaketek tentsio-aldaketak eragiten dituzte batez ere.

■ Kontrola modu zentralizatuan egiten da, kontrol-egitura hierarkiko baten bidez:

■ *Kontrol primarioa.* Kontrol lokala zentral edo azpiestazio batean. Erantzun-denbora azkarra da:

- Tentsioaren kontrol primarioa: gehienez segundoren bat.
- Maiztasunaren kontrol primarioa: 2 eta 20 segundo artean.

■ *Kontrol sekundarioa.* Kontrol inguru baten mailako kontrola da. Erantzun-denbora kontrol primariokoa baino geldoagoa da:

- Tentsioaren kontrol sekundarioa: zenbait segundo.
- Maiztasunaren kontrol sekundarioa : 20 segundo eta 2 minutu artean.

■ *Kontrol tertziarioa.* Sistema osoaren gaineko kontrola da.

8. gaia. Zentralen Kontrola Sarrera

■ Tentsioaren kontrolean parte hartzen dutenak:

- Sorgailuen tentsio erreguladorea (AVR Automatic Voltage Regulator)
- Transformadoreen hartune aldagailua
- Kondentsadore sinkronoa
- Kondentsadore-bateriak
- Erreaktantiak
- Elektronikoki kontrolaturiko kondentsadore eta erreaktantzia multzoak: FACTS (Flexible AC Transmission System)


■ Maiztasunaren kontrolean parte hartzen dutenak:

- Sorgailuen abiadura-erreguladorea (LFC Load Frequency Control)
- Kargak deskonektatzeko maiztasun-erreleak

■ Sorgailua da ekiporik malguena, tentsioaren nahiz maiztasunaren erregulazioa egiten baitu.

8. gaia. Zentralen Kontrola

Maiztasun-kontrolaren erantzun-sekuentzia



Kontrolaren elementuak

- **Kontrol primarioa:** abiadura-erregulatzaila
- **Kontrol sekundarioa:** sorkuntzaren kontrol automatikoa (Control Automático de Generación (AGC))
- **Kontrol tertziarioa:** sistema-operatzailearen kontsignak

8. gaia. Zentralen Kontrola

Kontrol primarioa sorgailuan


■ Sorgailu sinkronoa gai da sortzen duen potentzia aktiboa eta erreaktiboa modu jarraian aldatzeko, bi kontrol begizten bidez:

■ Tentsioaren kontrol automatikoak Q ardatzean eragiten du.

■ Kontrolak kitzikapen-sisteman eragiten du.


■ Maiztasunaren kontrol automatikoak P ardatzean eragiten du.

■ Kontrolak turbinaren sarreran eragiten du.



Funtzionamenduko mugako kurba:

$$S = \sqrt{P^2 + Q^2} = S_n$$




8. gaia. Zentralen Kontrola

Tentsioaren kontrol primarioa

■ Tentsioaren kontrol primarioaren funtzioa:

- Kontsigna-tentsioa sareko korapilo batean mantentzea. Normalean, korapilo hori da sorgailua konektaturik dagoena.

■ Tentsio-kontrolaren oinarritzko egitura:



8. gaia. Zentralen Kontrola

Tentsioaren kontrol primarioa

■ Tentsio-kontrolaren osagaiak:





- *Anplifikadorea*. Bere funtzioa errorea anplifikatzea da. Anplifikadore magnetikoa, birakaria edo elektronikoa izan daiteke. Irabazia (K_A) 10 eta 400 bitartean, eta denbora konstantea T_A 0,02 eta 0,1 s bitartean.
- *Kitzikagailua*. Errorearen arabera, errotorearen kitzikapena handiagotu edo txikiagotu egiten du. K_E 1 inguruan eta T_E 0,5 eta 1 s bitartean.
- *Sorgailua*. Kitzikapenaren arabera, irteerako tentsioa aldatu egiten da. K_G 0,7 eta 1 bitartean, eta T_G 1 eta 2 bitartean.
- *Sentsorea*. Tentsioa neurtzen du TT baten bidez eta arteztu egiten du. K_S 1 inguruan eta T_S 0,01 eta 0,06 s bitartean.

8. gaia. Zentralen Kontrola

Tentsioaren kontrol primarioa

■ Tentsio-kontrolaren osagaiak:

- Egonkorgailua: kontrolaren erantzun iragankorra hobetzea da bere funtzioa.



8. gaia. Zentralen Kontrola

Maiztasunaren kontrol primarioa



- **Maiztasunaren kontrol primarioaren funtzioak:** makinaren abiadura konstante mantentzea.

■ Maiztasunaren kontrol primarioaren begizta:

Erreguladoreak abiaduraren aldaketa antzematen du eta turbinaren sarrera aldatzen du, potentzia mekanikoa aldatzeko eta abiadura balio iraunkor berri batera eramateko.

Urte askoan zehar, Watt erreguladorean oinarrituriko sistema mekanikoak erabili dira, baina gaur egun erreguladore elektronikoak erabiltzen dira.


Erreguladoreak abiaduraren erreferentzia-balioa eta neurturiko balioa jasotzen ditu, eta turbinan sartzen den potentzia aldatzen du, sarreran eragiten duen amplifikadore hidrauliko batean eraginez.




8. gaia. Zentralen Kontrola Maiztasunaren kontrol primarioa

■ Maiztasunaren kontrol primarioaren begizta:


- Erreguladorearen ezaugarri bat R konstantea da. Konstante horren balio tipikoak: 0,05 ÷ 0,06 Hz_{pu}/MW_{pu}. τ_G 0,2 eta 0,5 s bitartean dago.



$$\Delta P_{val}(0) = \Delta P(0) = \left(\Delta P^{ref} - \frac{1}{R} \Delta \omega \right)$$



8. gaia. Zentralen Kontrola Maiztasunaren kontrol primarioa



ΔP_{ref} : Potentzia-konsignaren aldaketa.

ΔP_{val} : Turbina-sarreraren potentziaren aldaketa.

ΔP_L : Eskaturiko potentziaren aldaketa.


ΔP_m : Potentzia mekanikoaren aldaketa.

$\Delta \omega$: Abiaduraren aldaketa (maiztasuna), unitateko.

8. gaia. Zentralen Kontrola Maiztasunaren kontrol primarioa

■ Sorgailua eta kontsumoa:

Sorgailuaren erantzuna oszilazio-ekuazioaren arabera da:



8. gaia. Zentralen Kontrola Tentsioaren kontrol sekundarioa

■ Tentsioaren kontrol sekundarioaren funtzioak:

- Garraio-sarean tentsio profil egokia mantentzea.
- Potentzia erreaktiboaren erreserbak mantentzea, sistemaren hainbat eremutan tentsio-aldaketei aurre egiteko.

■ Funtzionamendu-printzipioa:

- Sistema kontrol-eremuetan banatzen da.
- Eremu bakoitzean korapilo batzuk zehazten dira (korapilo pilotuak). Korapilo bakoitzean kontsigna balio bat zehazten da. Aukeraturiko korapiloak:
 - Tentsioei dagokienez, eremuko korapilo multzoaren adierazgarri izan behar dira.
 - Erraz kontrolatzekoak izan behar dira.
- Korapilo pilotu bakoitzari zenbait sorgailu izendatzen zaizkio, tentsio-kontsigna mantentzeko helburuarekin.
- Kontrol sekundarioak sorgailuak koordinatzen ditu korapilo pilotuen tentsioa mantenduz eta, horrela, kontrol-eremuaren tentsio profila ziurtatuz.

8. gaia. Zentralen Kontrola Maiztasunaren kontrol sekundarioa (AGC)

■ Maiztasunaren kontrol sekundarioa edo AGC (Automatic Generation Control). Bere funtzioak:

- Sisteman aldaketak edo perturbazioak daudenean, kontroladore primarioak sorturiko maiztasun-errorea zuzentzea, errorea zero eginez.
- Sorkuntza kargari doitu.


■ Funtzionamendu-printzipioa:

- Sistema kontrol-eremuetan banatzen da. Ereku bakoitzean, bat-batean zabaltzen dira maiztasunaren aldaketak.
- Sistemaren P^{ref} erreferentzia-balioaren aldaketa zehazten duen integratzaile batean sarturiko eremu-errorea (EE).
 - Eremuko maiztasunaren errorearekiko proportzionala den osagaia (f_1).
 - Potentzia-trukearen errorearekiko proportzionala den osagaia (P_{12}).

$$\Delta P^{ref} = -\frac{K_I}{s} EE(s)$$

$$EA_1 = B_1 \Delta f_1 + \Delta P_{12}$$

8. gaia. Zentralen Kontrola Maiztasunaren kontrol sekundarioa (AGC)



$$EE_i = \text{DESVGENZ}_i + \text{maiztasun errorea} + \text{CRR}_i$$

DESVGENZ_i = Eremuko sorkuntzaren desbideraketa, programaturiko balioekiko.

CRR_i = Koordinazio-seinalea Frantziarekin dagoen trukea kontrolatzeko.

CECOEL (Centro de Control Eléctrico), REEren parte da

- Erregulazio-behar osoak kalkulatu (PRR)

$$\text{PRR} = \text{DESVFRAN} + \sum \text{DESVGENZ}_i$$

$$\text{DESVFRAN} = \text{Frantziarekin trukea egiten duten lineetan doan potentziaren desbideraketa.}$$
- Kontrol-eremu bakoitzera bidali behar den CRR koordinazio-seinaleen balioa kalkulatu du.

$$\text{CRR}_i = K_i * \text{PRR}$$
- K_i , ordu bakoitzean aldatzen da, erregulazio sekundarioko merkatuan irten den emaitzaren arabera.
- 4 segundoro kalkulatu dira balio berriak.

8. gaia. Zentralen Kontrola

Kontrol tertziarioa

- Kontrol tertziarioa maiztasunaren eta tentsioaren baterako kontrola da. Kargen banaketa optimoan oinarritzen da eta, segurtasunaren eta ekonomiaren ikuspegitik, sistema bere osotasunean hartzen du kontuan.
- Tentsioarentzat, kontrolak zehazten ditu, sistema osoaren informazioa erabiliz, erreaktantzia eta kondentsadore-baterien egoera, transformadoreen erregulazio-hartuneen egoera eta korapilo pilotuen tentsio-kontsignak. Balio horiek kontrol sekundarioari bidaltzen dizkio, eta hori arduratuko da, sorgailuen kontrol primarioan eraginez, balio horiek mantentzeaz.
- Maiztasunarentzat, kontrol tertziarioak potentzia aktiboaren ekoizpen-balioak bidaltzen dizkie sistemako sorgailuei.

9. GAIA. ZENTRALEN BABESA

- 9.1. Sarrera
- 9.2 Akats motak
- 9.3 Sorgailuaren babes
- 9.4 Sorgailuaren babes-eskema
- 9.5 Transformadorearen babes
- 9.6 Transformadorearen babes-eskema
- 9.7 Laguntza-sistemen babes

9. gaia. Zentralen Babesa Sarrera

■ Zentral bateko babes-sistemen funtzioak:

- Zentraleko ekipoak barne-akatsen aurrean babestu eta zentrala deskonektatuz akatsak sarera zabaltzea saihestu.
- Zentraleko ekipoak kanpo-akatsen aurrean babestu eta zentrala deskonektatuz akatsak zentral barrura zabaltzea saihestu.

■ Erabilitako babes motak:

- Intentsitate-babesa
- Tentsio-babesa
- Babes diferentziala
- Maiztasun-babesa
- Potentzia-babesa
- Distantzia-babesa
- Babes termikoa

9. gaia. Zentralen Babesa Akats motak

- Sorgailu batean gerta daitezkeen akatsak
 - Isolatzaileak kaltetzea:
 - ◆ Estatoreko faseen arteko kontaktua.
 - ◆ Estatoreko fase bereko espiren arteko kontaktua.
 - ◆ Estatorearen eta lurraren arteko kontaktua.
 - ◆ Errotorearen eta lurraren arteko kontaktua.

 - Funtzionamendu-egoera ezohikoak:
 - ◆ Kitzikapenaren galera
 - ◆ Desorekaturiko kargak
 - ◆ Gainabiadura
 - ◆ Gainkargak
 - ◆ Barne-gaintentsioak
 - ◆ Maiztasuna
 - ◆ Potentzia-alderanzketa
 - ◆ Labainketa-akatsak
 - ◆ Harilketa eta nukleo magnetikoa hoztearen akatsa

9. gaia. Zentralen Babesa Akats motak


- Transformadore batean gerta daitezkeen akatsak:
 - Isolatzaileak kaltetzea:
 - Faseen arteko kontaktua
 - Fase bereko espiren arteko kontaktua
 - Zirkuitu magnetikoarekin kontaktua
 - Lurrerako (masa) kontaktua

 - Funtzionamendu-egoera ezohikoak:
 - Gainkargak
 - Kanpoko sareko zirkuitulaburrak
 - Gaikitzikapena


- Laguntza-sistemetan gerta daitezkeen akatsak:
 - Isolamenduaren galerak eragindako akatsa.
 - Funtzionamendu-egoera ezohikoak tentsioaren aldaketengatik.
 - Funtzionamendu-egoera ezohikoak maiztasunaren aldaketengatik.

9. gaia. Zentralen Babesa Sorgailuaren babesa


- Estatoreko faseen arteko kontaktuaren aurkako babesa (87G)
 - Ehunekoaren araberako babes diferentziala erabiltzen da babes nagusi gisa.
 - Gainintensitate-babesa (51G) erabiltzen da laguntza-babes gisa.



Babes diferentzial independentea sorgailu eta transformadorearentzat




Ehunekoaren araberako babes diferentziala




Multzoaren babes diferentziala. Sorgailu eta transformadorearentzat komuna

9. gaia. Zentralen Babesa Sorgailuaren babesa

- Estatorearen eta lurraren arteko kontaktua (64G)
 - Sorgailuetan izaten den akatsik ohikoena da. Ondoren ematen diren espiren arteko eta faseen arteko kontaktuen jatorria izaten da, eta kalte handiak sortzen dira sorgailuan.
 - Akats-intentsitatea txikia izan dadin, neutroa balio handiko inpedantzia batez konektaturik egoten da lurrera (transformadore monofasikoa neutroan).
 - Tentsio maximoko errele bat erabiltzen da, neutroko inpedantzian agertzen den tentsioa neurtuz. Iragazki bat erabiltzen da 3. armonikoarentzat; akats baten ondorioz neutroaren inpedantzian tentsio bat agertuko da eta erreleak erantzun egingo du.




3. armonikoa




9. gaia. Zentralen Babesa Sorgailuaren babesa

- Errotorearen eta lurraren arteko kontaktuaren aurkako babesa (64F)
 - Kitzikagailua eta errotoreko zirkuitua lurretik isolaturik daude.
 - Akats bakar batek ez du kalterik sortzen, baina bigarren akatsen batek zirkuitulaburrean utziko du harilketaren zati bat. Horren ondorioz, burdinarteko fluxu magnetikoan desorekak agertuko dira (bi poloen arteko diferentzia dela eta). Errotoreak biratzean esfortzu asimetrikoak agertuko dira ardatzean, eta bibrazio horiek kalteak sor ditzakete.
 - Akatsa antzemateko zenbait modu daude. Aukera bat da maiztasun txikiko korrante zuzeneko tentsio-iturri baten konexioa, akoplamendu kapazitibo baten bidez. Lurrerako akats bat gertatzen bada, doitzeko erresistentzian tentsio-erorketa bat sortuko duen korrante bat agertuko da. Erresistentziaren borneytan konektaturik dagoen tentsio maximoko errele batek akatsa antzemango du, tentsioaren balioak zehazturiko balio jakin bat gainditzen duenean.



9. gaia. Zentralen Babesa Sorgailuaren babesa


- Kitzikapenaren galeraren aurkako babesa (40)
 - Kitzikapenaren galerak sorgailuaren eta sarearen arteko sinkronismoaren galera dakar.
 - Egoera horretan, alternadorearen funtzionamendua indukzio-sorgailu batena da. Sareari P ematen dio, baina kitzikapenerako behar duen Q xurgatzen du. Errotoreko poloetan agertzen den korranteak beroketa handia sor dezake.
 - Sinkronismoa galtzeak ez du esan nahi sorgailua deskonektatu behar denik, irteerako tentsioa txikiegia ez bada behintzat. Deskonexioa egitekotan, sorgailuaren etengailua eta errotoreko etengailua zabalduko ziren, baina ez da eten behar eragingailu nagusia, gehienetan akatsa azkar konpontzen baita.
 - Sorgailu txikietan intentsitate minimoko errele bat erabiltzen da, kitzikapen-korrantea kontrolatzeko.



9. gaia. Zentralen Babesa Sorgailuaren babesa

■ Kitzikapenaren galeraren aurkako babesa (40)



- Sorgailu handietan distantzia-errele bat erabiltzen da, sorgailuaren irteeran konektaturik kitzikapena galtzean gertatzen den inpedantzia-aldaketa antzemateko.



9. gaia. Zentralen Babesa Sorgailuaren babesa

■ Desorekaturiko kargen aurkako babesa (46)

- Desorekaturiko kargak eta akats asimetrikoek alderantzizko sekuentziako intentsitateak sortzen dituzte. Alderantzizko sekuentziako korrontek sorturiko eremuak errotorearen biraketaren aurkako noranzkoan biratzen du. Horrela, harilkatu inductorean, harilkatu indargetzailean, eta nukleoan sarearen maiztasun bikoitzeko korrontek induzituko dira. Horiek galerak sortzen dituzte eta errotorea modu arriskutsuan bero dezakete.
- Desorekak antzemateko, alderantzizko sekuentziako alderantzizko denborako gaitentsitate-erreleak erabiltzen dira.
- Babes-sistemak sorgailuaren etengailua zabaltzea eragingo du, sistematik isolatuz. Ez da sistema guztia gelditzen, akatsa azkar konpontzeko aukera egon baitaiteke.





9. gaia. Zentralen Babesa Sorgailuaren babesa

- Gainabiaduraren aurkako babesa (12)
 - Sareari konektaturiko sorgailu batean zaila da hori gertatzea. Ez, ordea, irla moduan ari den sorgailu batean.
 - Babes-sistemak ez du makinaren etengailua zabaldu behar, horrek azelerazioa handituko bailuke. Egin behar dena turbinaren sarrera ixtea da.
- Ginkargen aurkako babesa (51)
 - Alternadoreek zirkuitulaburreko korrantea jasan dezakete, denbora-tarte jakin batean.
 - 87 babes diferentzialaren laguntza-babesa da. Hark ez badu erantzuten, honek egingo du.
 - Alderantzizko denborako gainintensitate-erreak erabiltzen dira.
- Gaintentsioen aurkako babesa (59)
 - Gaintentsioak ager daitezke errotorearen abiadura handitzean, abiaduraren erreguladorearen akatsa gertatzean edo tentsioaren erreguladorearen akatsa gertatzean.
 - Tentsio maximoa erreak erabiltzen dira. Horiek berehalakoak ($1,4 V_N$) edo tenporizatuak ($1,2 V_N$) izan daitezke.
- Maiztasun-babesa (81)
 - Ezohiko maiztasunekin lan egiteak kalte larriak sor ditzake sorgailuan eta turbinan. Aurretik finkaturiko denbora batez maiztasunak balio izendatu bat goitik (81H) edo behetik (81L) gainditzen badu, erantzuten du.

9. gaia. Zentralen Babesa Sorgailuaren babesa

- Potentziaren inbertsioaren aurkako babesa (32)
 - Sorgailuan motor moduan hasiko balitz, turbinan kalteak sor daitezke. Horregatik, sorgailuaren deskonexioa egin behar da.
 - Potentzia aktibo monofasikoko norabide-erreak baten bidez babesten da.



Prime Mover	Motoring Power (% of rated)	Possible Damage	Protection Setting
Diesel Engine	5-25	Fire/explosion due to unburnt fuel Mechanical damage to gearbox/shafts	50% of motoring power
Gas Turbine	10-15 (split shaft) >50% (single shaft)	gearbox damage	
Hydro	0.2-2 (blades out of water) >2 (blades in water)	blade and runner cavitation	
Steam Turbine	0.5-6	turbine blade damage gearbox damage on geared sets	


- Labainketa-akatsen aurkako babesa (38)
 - Kojineten tenperaturaren babesa
- Harilketa eta nukleo magnetikoa hoztearen akatsa (49)
 - Harilketaren tenperaturaren babesa

Ajustes de temperatura relé SEPAM serie 20
ANSI 38/49T - Temperatura (sondas)
Umbral de alarma y de disparo de 0 a 180 °C (o de 32 a 356 °F)

9. gaia. Zentralen Babesa Transformadorearen babesa

■ Buchholz errelea (63 B)

- ❑ Olio-bainuko transformadoreen barne-akatsen babesa.
- ❑ Barne-akatsak (isolatzailearen akatsak, eroaleen haustura, burdinaren beroketa...) eta ihesa dagoenean gertatzen den olio-mailaren aldaketa antzemateko erabiltzen da.
- ❑ Barne-akats batek isolatzaile solido eta likidoen deskonposizioa dakar. Ondorioz, burbuila moduan gainazalera igotzen den gasa sortzen da.
- ❑ Metaturiko gasak olio-maila jaitsarazten du, alarmaren bat edo etengailua eraginez.




9. gaia. Zentralen Babesa Transformadorearen babesa

■ Buchholz-Jansen errelea (63 BJ)


- ❑ Erreguladorearen hartune-konmutadorea eta transformadorea babesten ditu, erreguladorearen akatsaren kasuan.

■ Babes diferentziala (87)

- ❑ Faseen arteko eta fase-lurra akatsak antzematea.
- ❑ Fase bakoitzeko primarioaren sarrerako eta sekundarioaren irteerako intentsitateak alderatzen ditu.
- ❑ Iragazte-osagaiak erabiltzen ditu transformadorea energizatzean deskonexioa gerta ez dadin.




Protección diferencial de un transformador trifásico Yv0.



■ Lurrerrako babes murriztua 64


- ❑ Inpedantzia handiko lurrerrako akatsak antzematen ditu, babes diferentzialak baino sentikortasun handiagoarekin.



9. gaia. Zentralen Babesa Transformadorearen babesak

■ Upelaren babesak

- Masarako akatsen aurka babesten du transformadorea.
- Upelaren lurrerako konexioan intentsitate-transformadore bat ipintzen da. Transformadore horren sekundarioa berehalako gainintentsitate-errele batera konektaturik dago (50).
- Babesak erantzuteak ez du esan nahi transformadorean akatsen bat dagoenik. Upelaren eta tentsioan dagoen edozein osagaiaren arteko kontaktuak babesaren erantzuna ekarriko du.




Protección de cuba.

9. gaia. Zentralen Babesa Transformadorearen babesak

■ Gaiak eta zirkuitulaburren aurkako babesak

- Transformadoreak ahalmena izan behar du gaiak denbora-tarte laburretan jasateko. Era berean, zirkuitulaburrak jasateko ahalmena izan behar du, sareko babesak garbitzen dituen arte.
- Kanpoko akatsen aurrean kanpoko babesek huts egiten dutenean bakarrik erantzun behar dute transformadorearen babesek. Horretarako, alderantzizko denborako gainintentsitate-babesak erabiltzen dira (51).
- Transformadoreak gaiak iraunkorren aurka babesturik egon behar dira, gehiegizko beroketa eta ondorioz isolatzaileen hondatze goiztiarra ekar baitezakete.
 - ◆ Olioaren tenperatura-kontrola, termostatoen (26-2) edo termometroen (26-1) bidez.
 - ◆ Harilketen tenperatura erreproduzitzeko, irudi termikoko gailuak (49) erabiltzen dira. Tenperaturak balio jakin bat gainditzean erantzuten da.



Protección de sobrecarga del arrolamiento de un transformador.

9. gaia. Zentralen Babesa

Laguntza-sistemen babesa

- Gaintentsioaren eta azpitentsioaren babesa:
 - Laguntza-sistemak tentsio-igoeren aurrean babesteko, gaintentsio-babes erreleak erabiltzen dira (59). Horiek berehalakoak ($1,4 V_N$) edo tenporizatuak ($1,2 V_N$) izan daitezke.
 - Tentsio-jaitsieren aurrean babesteko azpitentsio-babes erreleak erabiltzen dira (27). Unitate tenporizatua V_N -ren % 80 abiatzen da, eta tentsio-mailaren arabera azkarrago edo motelago erantzuten du (% 70 V_N - 3 s, % 60 V_N - 0,5 s).

- Beste babes batzuk:
 - Ekipo bakoitzak bakoitzari dagozkion babesak eramango ditu (transformadoreak, motorrak, barrak).